



**AGINDUA, JAURLARITZAKO BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN
ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURREKO
ONARPENA EMATEN BAITZAIO EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ZERBITZU-
ZORROARI ETA HAREN TRESNA KOMUNEI BURUZKO DEKRETU-PROIEKTUARI.**

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguoko sailburuaren 2026ko otsailaren 13ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Euskal Enplegu Sarearen zorroari eta haren tresna komunei buruzko dekretu-proiektuari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeko 15.1 artikulua honela dio: "Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik".

Adierazitakoaren arabera, behin dekretu-proiektuaren testua idatzita eta prozedura hasteko aginduan ezarritako helburuarekin bat etorritik dagozkion izapideak egin aurretik alde aurreko onarpena eman behar zaio eta, beraz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea Euskal Enplegu Sarearen zorroari eta haren tresna komunei buruzko dekretu-proiektuaren testua.

Bigarrena.- Araua egiteko prozedurarekin jarraitzea xedatzea, eta behar diren instrukzio-egintzak egiteko agintzea, bat etorritik prozedura hasteko 2026ko otsailaren 13ko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean adierazitako premisekin.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

MIGUEL TORRES LORENZO

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguoko sailburua





AURKIBIDEA

XXXX/202X DEKRETUA, XXXXAREN XX(E)KOA, EUSKAL ENPLEGU-SAREAREN ZERBITZU-ZORROARI ETA TRESNA KOMUNEI BURUZKOA

ZIOEN AZALPENA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.
 2. artikulua.– Aplikazio-eremua.
 3. artikulua.– Printzipio gidariak.
 4. artikulua.– Administrazioen arteko koherentzia- eta koordinazio-esparrua.
-

II. KAPITULUA

EUSKAL ENPLEGU-SAREAREN ZERBITZU-ZORROA

5. artikulua.– Zerbitzu-zorroa.
 6. artikulua.– Helburua.
 7. artikulua.– Zerbitzu-zorroaren edukia.
 8. artikulua.– Pertsona eta entitate hartzaileak.
 9. artikulua.– Kalitateari eta baliabideei buruzko eskakizun komunak.
 10. artikulua.– Zerbitzu-zorroa eguneratzea.
 11. artikulua.– Kudeaketaren printzipio gidariak.
-

III. KAPITULUA

ARRETA, INFORMAZIO ETA PROSPEKZIORAKO TRESNA KOMUNAK

1. atala

Xedapen orokorrak

12. artikulua.– Tresna komunak.
13. artikulua.– Garapen teknikoa eta baldintzak.
14. artikulua.– Oinarrizko ezaugarriak.
15. artikulua.– Tresna komunaren gutxienezko tipologia.

2. atala

Arreta eta jarraipenerako tresna komuna

16. artikulua.– Arreta eta jarraipenerako tresna komuna.

3. atala



Lan-historia bakarria

- 17. artikulua.– Lan-historia bakarria.
- 18. artikulua.– Gutxieneko edukia.
- 19. artikulua.– Kontserbazioa eta erantzukizunak.
- 20. artikulua.– Sarbidea eta konfidentzialtasuna.
- 21. artikulua.– Eskuratzeko, zuzentzeko eta kopiatzeko eskubideak.

4. atala

Enpresa-espediente bakarria

- 22. artikulua.– Enpresa-espediente bakarria.

5. atala

Beste tresna komun batzuk

- 23. artikulua.– Enplegu-, prestakuntza- eta zerbitzu-eskaintzen informazio eta kudeaketarako tresna.
 - 24. artikulua.– Pertsonak profilatzeko erreminta.
 - 25. artikulua.– Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia.
-

IV. KAPITULUA

ZORROAN SARTUTAKO ZERBITZUAK

- 26. artikulua.– Zorroan sartutako zerbitzuak.
- 27. artikulua.– Zorroko zerbitzuen egitura teknikoa.

1. atala

Enplegurako orientazio-zerbitzua

1. azpiatala. Xedapen orokorrak

- 28. artikulua.– Enplegurako orientazio-zerbitzua.
- 29. artikulua.– Zerbitzua eskuratzeko eskakizunak eta doakotasuna.
- 30. artikulua.– Erabiltzaileen eskubideak.
- 31. artikulua.– Erabiltzaileen eginbeharrak.
- 32. artikulua.– Prestazio teknikoak.

2. azpiatala. Triajea

- 33. artikulua.– Triajea.
- 34. artikulua.– Prozesua.
- 35. artikulua.– Eduki teknikoa.

3. azpiatala. Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala

- 36. artikulua.– Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala.
- 37. artikulua.– Irizpideak.
- 38. artikulua.– Metodologia komuna.



- 39. artikulua.– Adierazle komunak.
- 40. artikulua.– Erregistro-sistema eta trazabilitatea.
- 41. artikulua.– Jarraipena eta kalitate-kontrola.
- 42. artikulua.– Berrikuspena.
- 43. artikulua.– Diagnostikoaren eta prestakuntzarako sarbidearen arteko erlazioa.
- 44. artikulua.– Ez-betetzea justifikatzen duten inguruabarrak.
- 45. artikulua.– Justifikazio-inguruabarrak hautemateko prozedura.
- 46. artikulua.– Erakundearteko koordinazioa.
- 47. artikulua.– Jarraipena eta ebaluazioa.

4. azpiatala. Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua

- 48. artikulua.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua.
- 49. artikulua.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuaren izaera eta koordinazioa.
- 50. artikulua.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuaren formalizazioa eta ondoreak.

5. azpiatala. Tutoretza, aholkularitza jarraitua eta laguntza

- 51. artikulua.– Tutoretza, aholkularitza jarraitua eta laguntza.
- 52. artikulua.– Erreferentziazko profesionala.
- 53. artikulua.– Ordezpen-eskubidearen bermea.
- 54. artikulua.– Ordezpen-kasuak.
- 55. artikulua.– Ordezpen-prozedura.
- 56. artikulua.– Ordezpenaren ondoreak.
- 57. artikulua.– Euskal Enplegu Sareko entitateekin koordinatzea.
- 58. artikulua.– Komunikazioa eta gardentasuna.
- 59. artikulua.– Jarraipena eta ebaluazioa.

6. azpiatala. Tresna- eta laguntza-elementuak

- 60. artikulua.– Tresna- eta laguntza-elementuak.

2. atala

Lanerako prestakuntza-zerbitzua

- 61. artikulua.– Lanerako prestakuntza-zerbitzua.
- 62. artikulua.– Hartzaileak.
- 63. artikulua.– Zerbitzua eskuratzeko eta laguntza jasotzeko eskakizunak eta baldintzak.
- 64. artikulua.– Parte-hartzea, konpromisoak eta bermeak.
- 65. artikulua.– Lanerako prestakuntza-zerbitzuaren jarduketak.
- 66. artikulua.– Prestazio-modalitateak.
- 67. artikulua.– Espero daitezkeen emaitzak eta kalitate-adierazleak.

3. atala

Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua

68. artikulua.– Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua.

69. artikulua.– Zerbitzua eskuratzeko eskakizunak eta kudeaketa.

4. atala

Autoenplegurako eta ekintzaitzarako aholkularitza-zerbitzua

70. artikulua.– Autoenplegurako eta ekintzaitzarako aholkularitza-zerbitzua.

5. atala

Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzako aholkularitza-zerbitzua

71. artikulua.– Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzako aholkularitza-zerbitzua.

6. atala

Lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua emateko zerbitzua

72. artikulua.– Lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua emateko zerbitzua.

V. KAPITULUA

KALITATE-, EFIZIENTZIA- ETA EBALUAZIO-ESTANDARRAK

73. artikulua.– Kalitate- eta efizientzia-estandarrak.

74. artikulua.– Ebaluazioa, jarraipena eta trazabilitatea.

75. artikulua.– Zorroko zerbitzuen koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria.– Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorrotik kanpoko berrikuntza-prozesuak.

Bigarren xedapen gehigarria.– Inklusiorako eta laneratzeko ibilbide partekatuak.

Hirugarren xedapen gehigarria.– Lanerako prestakuntza-zerbitzua.

Laugarren xedapen gehigarria.– Enplegarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriak.

Bosgarren xedapen gehigarria.– Tokiko enpleguaren estatistika ofizialak.

Seigarren xedapen gehigarria.– Kontzeptu-erreferentziak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Xedapen iragankor bakarra.– Tresna komunak pixkanaka ezartzea.



AZKEN XEDAPENA

Azken xedapen bakarra.– Indarrean jartzea.

I. ERANSKINA-Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuen fitxak.

XXXX/2026 DEKRETUA, EUSKAL ENPLEGU-SAREAREN ZERBITZU-ZORROARI
ETA TRESNA KOMUNEI BURUZKOA.

ZIOEN AZALPENA

I

Dekretu hau onesteak Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren erregulazioa garatzeko eta eguneratzeko premiari erantzuten dio, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 25. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez, eta Enplegu Sistema Nazionalaren zerbitzu-zorro komunarekin bat etorriz –Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legean dago araututa–, bai eta hura garatzeko araudiarekin ere.

Zerbitzu-zorroa Estatuko zorro komuna lurraldean egokitzen duen tresna da. Horren bidez, bermatzen da Estatu osoko gutxieneko zerbitzu komunak Euskadin emango direla, eta, aldi berean, zabaldu eta pertsonalizatu egiten dira zerbitzuok, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuaren ezaugarriak eta Euskal Enplegu Sarearen lehentasun estrategikoak aintzat hartuta. Maila anitzeko artikulazio horrek bi sistemen arteko koherentzia funtzionala eta elkarreragingarritasuna ziurtatzen ditu, eta indartu egiten du Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Enplegu Sistema Nazionalaren arteko lankidetzak.

Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa, orobat, Euskal Enplegu Sarearen erabiltzaileen eskubideen eraginkortasuna bermatzeko oinarrizko tresna da, eta eskubide horiek modu erreal eta homogineoan baliatzeko aukera ematen du, edozein direla ere zerbitzua ematen duen entitateak, erabilitako sarbide-kanala edo arreta ematen duen lurraldea.

II

Ikusirik lan-merkatuaren eraldaketa, pertsonen, enpresen eta entitate enplegatzaileen premien bilakaera, eta erronka sozial eta ekonomikoen gero eta konplexutasun handiagoa, ezinbestekoa da enplegu-politika publikoen bidez erantzun koordinatu, malgu eta eraginkorra ematea. Testuinguru horretan, Euskal Enplegu Sarea erakundearteko lankidetzarako tresna bat da, zeina bideratuta dagoen euskal herritarren eta euskal enpresa-ehunaren aniztasunera egokitutako kalitatezko zerbitzu irisgarriak bermatzera.

Dekretuak indartu egiten ditu sistemaren kohesioa eta koherentzia, eta jarduketa-esparru komun bat ezartzen du Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarentzat, foru-aldundientzat, toki-entitateentzat eta entitate laguntzaileentzat. Zerbitzuen prestazioa homogeneoa dela ziurtatzen du eta bikoiztasunak saihesten ditu, sistemaren antolamendu- edo eskumen-komplexutasuna erabiltzaileei helarazi gabe.

Zerbitzu-zorroa esparru funtzional komun bat da eta enplegu-zerbitzuen prestazioa antolatzen du erabiltzaile diren pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzat, emaitza egiaztagarriak sortzera bideratutako prozesuetan. Dekretu honetan jasotako erregulazioak ez dio kalterik egiten Estatuko legeriak enpleguaren arloan xedatutakoari. Hain zuzen ere, erregulazio honek osatu egiten du legeria hori, garatu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, saihestu egiten ditu alferrikako arau-errepikatzeak eta indartu egiten du segurtasun juridikoa.

III

Dekretu honek garatzen duen arreta-eredua laguntza-ibilbide pertsonalizatu baten inguruan artikulatuta dago. Ibilbide hori enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuaren (EPIP) bidez egituratuta dago, eta koherentziaz antolatzen ditu orientazio-, prestakuntza-, bitartekaritza- eta laguntza-jarduketak.

EPIP plana arreta indibidualizatuaren prozesuko erreferentziazko esparru operatiboa da. Funtzionalki Estatuko enplegu-araudian aurreikusitako jarduera-akordioarekin integratuta dago, eta Euskal Enplegu Sarearen eremuan erabiltzaileari dagozkion konpromiso, jarduketa eta betebeharrak jasotzen ditu.

Eredu hori dimentsio anitzeko ikuspegiaren arabera garatzen da, eta koherentea da Enpleguaren, Ongizatearen eta Inklusioaren erakundearteko esparruarekin. Horrela, gizarte-, hezkuntza- eta osasun-sistemekiko koordinazioa bermatzen du lan-eremua gainditzen duten premiak daudenean, eta pertsona bakoitzaren egoerari egokitutako erantzun integral eta proportzionatuak ematen ditu.

Era berean, lan-eremua gainditzen duten zaugarritasun-egoerak edo gizarteratze-premiak dauden kasuetan, arreta-ibilbidea Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalarekin (IPIP) koordinatuta garatu ahal izango da –programa hori Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean aurreikusita dago–, bi tresnen arteko koherentzia eta osagarritasuna bermatuz.

IV

Jarduketan jarraitutasuna, kalitatea eta trazabilitatea bermatzeko helburuarekin, dekretuak ezartzen du Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitate guztiek tresna komunak erabili behar dituztela nahitaez. Tresna horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: arreta eta jarraipenerako tresna komuna, lan-historia bakarra eta enpresa-espeditu bakarra. Hiru horiek sistemaren euskarri eragilea osatzen dute eta informazioaren elkarreragingarritasuna bermatzen dute.

Tresna digitalak eta informazio-sistema partekatuak zerbitzuen efizientzia eta kalitatea hobetzeko bitarteko gisa daude ezarrita, eta horiek erabiltzeak ez du mugatuko sarbide presentziala edo pertsonalizatua. Dekretuak honako hauek bermatzen ditu:



irisgarritasun unibertsala, datu pertsonalen babesa, informazioaren konfidentzialtasuna eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideekiko errespetua.

Era berean, arreta berezia jartzen zaio administrazio-simplifikazioari eta exijitutako kargen proportzionaltasunari, batez ere lanerako prestakuntza eskuratzean, administrazio-prozedurak ez daitezen justifikaziorik gabeko oztopo bihurtu zerbitzuetan parte hartzeko orduan.

V

Dekretuak zorroko zerbitzuen jarraipenerako, ebaluaziorako eta etengabeko hobekuntzarako esparru bateratu bat ezartzen du, adierazle kualitatibo eta kuantitatibo homogeneousetan oinarrituta. Adierazle horiek sexuaren eta lehentasunezko arreta behar duten kolektiboen arabera bereizita daude, eta aukera ematen dute enplegu-politika publikoen efikazia, efizientzia eta eragina neurtzeko.

Ebaluazio- eta jarraipen-jarduketek izaera teknikoa dute, eta sistema etengabe hobetzera bideratuta daude. Dena den, hala dagokionean aplikatu beharreko zehapen-prozedurak berariazko araudiaren mende egongo dira.

Dekretu honetan aurreikusitako tresna komunak pixkanaka ezarriko dira, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak onesten duen plangintzaren arabera. Ezarpen horretan, teknikaren eta antolamenduaren arloko bideragarritasun-irizpideak beteko dira, eta une oro bermatuko da erabiltzaileei arreta etengabea ematen zaiela.

Era berean, enplegurako orientazio-zerbitzua modu integratuan emateko modalitateak daudela onartzen du dekretuak, ongizate-estatuko beste sistema batzuek egiten duten akonpainamenduarekin batera. Horrela, inklusiorako eta laneratzeko ibilbide partekatuak sistemen arteko interakziorako espazio gisa ulertzen dira, non zorro desberdinetako prestazioak eta zerbitzuak artikulatzen diren, erabiltzaileen egoerak edo profilak hala eskatzen duenean.

Ibilbide horien antolamendu- eta funtzio-araubidea Euskal Enplegu Sarearen eta bere Maparen Dekretuan dago jasota. Honako dekretu hau mugatzen da araubide hori zerbitzu-zorroan eta tresna komunaren sisteman egokitzea, baina ez du sortzen zerbitzu berezirik edo berariazko programarik.

Era berean, dekretuak espresuki mugatzen du bere eremua enplegarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriei dagokienez. Programa horiek Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen IV. kapituluaren aurreikusita daude, eta politika publikoko berariazko tresnak dira, aldi baterakoak edo finalistak, zorroan sartutako zerbitzuez bestelakoak, eta berariazko dekretuen bidez arautu beharrekoak.

VI

Dekretuak bost kapitulu, sei xedapen gehigarri, xedapen iragankor bakarra eta azken xedapen bakarra ditu. Eranskin bat ere badu.

I. kapitulua xedapen orokorreko buruzkoa da. Dekretuaren xedea eta aplikazio-eremua ezartzen ditu, zerbitzu-zorroaren kudeaketaren printzipio gidariak zehazten ditu, eta Euskal Enplegu Sareari dagokionez Administrazioen arteko koherentzia- eta



koordinazio-esparrua ezartzen du, Enplegu Sistema Nazionalarekin bateragarria dela bermatuz.

II. kapituluak Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa arautzen du, pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileei zuzendutako prestazioen multzo egituratu gisa. Kapitulu horretan, alderdi hauek zehazten dira: haren helburua, gutxieneko edukia, pertsona eta entitate hartzaileak, kalitate- eta baliabide-eskakizun komunak, kudeaketaren printzipio gidariak eta zerbitzuak eguneratzeko mekanismoak.

III. kapitulua arreta, informazio eta prospekziarako tresna komunei buruzkoa da, eta haien izaera, oinarrizko ezaugarriak eta gutxieneko tipologia zehazten ditu. Bertan hauek arautzen dira, besteak beste: arreta eta jarraipenerako tresna komuna, lan-historia bakarra, enpresa-espeditante bakarra, informazio- eta profilatze-sistema komunak, eta Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia. Jarduketan elkarreragingarritasunerako, trazabilitaterako eta ebaluazio homogeneorako funtsezko euskarriak dira horiek guztiak.

IV. kapituluak zerbitzu-zorroan sartutako zerbitzuak garatzen ditu, eta berariaz arautzen ditu honako hauek: enplegurako orientazio-zerbitzua; lanerako prestakuntza-zerbitzua; bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua; autoenplegurako eta ekintzailatzarako aholkularitza-zerbitzua; pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzako aholkularitza-zerbitzua; eta lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua emateko zerbitzua. Horietako bakoitzerako, alderdi hauek zehazten ditu: xedea, hartzaileak, zerbitzua eskuratzeko eskakizunak, jarduera nagusiak eta espero diren emaitzak.

V. kapituluak zorroko zerbitzuen kalitate-, efizientzia- eta ebaluazio-estandarrak ezartzen ditu. Horrez gain, jarraipenerako, kontrol teknikorako eta etengabeko hobekuntzarako sistemak arautzen ditu, baita Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegu- eta inklusio-politikak ebaluatzeko organoen arteko koordinazio-mekanismoak ere.

Xedapen gehigarriek, xedapen iragankorrek eta azken xedapenak osatu egiten dute arau-esparrua, eta, besteak beste, honako alderdi hauek arautzen dituzte: tokiko enpleguaren estatistika ofizialak egitea, interpretazioa aplikatzekoa den Estatuko araudiaren arabera egitea, tresna komunak pixkanaka ezartzea eta dekretua indarrean jartzea.

Eranskinak Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuen fitxa teknikoak jasotzen ditu, eta haietan modu homogeneoan zehazten ditu haien definizioa, prestazioak, hartzaileak, eskuratzeko eskakizunak, osagaiak, jarduerak eta produktuak, bai eta zerbitzu horiek behar bezala ezartzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren beste elementu tekniko batzuk ere.

VII

Azkenik, dekretu hau indarrean jartzearekin, aurrera egingo da inklusiboagoa eta efizienteagoa den eta emaitzetara bideratuta dagoen enplegu-zerbitzuen eredu baterantz, eta indartu egingo dira gizarte- eta lurralde-kohesioa, pertsonen enplegarritasuna eta euskal ekoizpen-ehunaren lehiakortasuna. Era berean, bermatzen da zorroa etengabe egokituko dela lan-merkatuaren premietara eta Euskal Enplegu Sarearen lehentasun estrategikoetara.



Horrenbestez, dagozkion izapideak egin ondoren, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, eta 202X(e)ko XXaren XX(e)(a)n egindako bilkuran Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Dekretu honen xedea da Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren erregulazioa garatzea, zeina jasota dagoen Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 25. artikuluan eta hurrengoetan.

2.– Era berean, dekretuak tresna komunak identifikatzen ditu eta haien funtsezko ezaugarriak zehazten ditu. Halaber, horien garapen teknikora eta zerbitzuen ezarpen homogeneo, elkarreragile eta ebaluagarria bideratutako esparrua ezartzen du, Eusko Jaurlaritzan enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularraren agindu baten bidez.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Dekretu hau aplikatuko zaie Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ematen dituen zerbitzuen zorroan sartutako zerbitzu eta prestazioei, foru-aldundiei eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, bai eta Euskal Enplegu Sarea osatzen duten sektore publikoetako toki-enteei eta entitate instrumentalei ere.

2.– Euskal Enplegu Sarearen laguntzaile diren entitate pribatuei ere aplikatuko zaie, haren zerbitzu-zorroan esku hartzen dutenean.

3.– Euskal Enplegu Sarearen zerbitzuen erabiltzaile diren eta bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisiko guztiei aplikatuko zaie, langabeak edota okupatuak izan.

4.– Halaber aplikatuko zaie Euskal Enplegu Sarearen zerbitzuen erabiltzaile diren enpresa eta entitate enplegatzaileei.

3. artikulua.– Printzipio gidariak.

Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 5. artikuluan zehaztutako enplegu-politika publikoen printzipio gidariak ezarriko dira zerbitzu-zorroa kudeatzean eta hori emateko, egikaritzeko, kudeatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko tresna komunak erabiltzean.

4. artikulua.– Administrazioen arteko koherentzia- eta koordinazio-esparrua.

1.– Euskal Enplegu Sarea osatzen dutenek zerbitzuen koherentzia eta elkarreragina ziurtatu beharko dituzte, bai eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistemarekiko (SISPE) erabateko integrazioa eta bateragarritasuna ere. Horrez gain, Enplegu Sistema Nazionalaren zorro komuneko zerbitzuak bermatu beharko dituzte.

2.– Dekretu honetan aurreikusitako triaje-, diagnostiko- eta deribazio-jarduketak dimentsio anitzeko ikuspegiarekin garatuko dira, bat etorri enpleguaren, ongizatearen eta inklusioaren erakundearteko esku-hartze esparruarekin, eta gizarte-, hezkuntza- eta osasun-sistemekiko koordinazioa bermatuko dute hertsiki lan-arlokoak ez diren premiak daudenean.

II. KAPITULUA

EUSKAL ENPLEGU-SAREAREN ZERBITZU-ZORROA

5. artikulua.– Zerbitzu-zorroa.

1.– Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa prestazioen eta jarduketan multzo egituratua da, bideratuta dagoena pertsonen enplegarritasuna, laneratzea eta garapen profesionala hobetzera eta pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileen premiei erantzutera.

2.– Zorroan sartutako zerbitzu guztiak doakotasunaren, arreta pertsonalizatuaren, irisgarritasun unibertsalaren, kalitatearen, gardentasunaren eta etengabeko hobekuntzaren printzipioen mende egongo dira, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legean eta dekretu honetan xedatutakoaren arabera.

3.– Zerbitzu horien kudeaketa, prestazioa eta jarraipena egiteko, dekretu honetan zehaztutako tresna komunak erabiliko dira.

6. artikulua.– Helburua.

Zerbitzu-zorroaren helburua da edukia ematea Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-zerbitzuen eskatzaile gisa inskribatuta dauden pertsona guztiei aitortutako eskubideei, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen II. tituluan jasotako terminoetan, eta, horrez gain, pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileei eman beharreko gainerako zerbitzuak zehaztea. Zerbitzu-zorroa emaitza eraginkor eta ebaluagarriak lortzera bideratuta dago, eta jarduketan trazabilitatea eta emandako zerbitzuen etengabeko hobekuntza bermatzen ditu.

7. artikulua.– Edukia.

1.– Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 25. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zorroan zerbitzu hauek sartzen dira, gutxienez:

a) Enplegurako orientazioa.

b) Lanerako prestakuntza.

c) Bitartekaritza eta enplegatzea.

d) Autoenplegurako eta ekintzailentzarako aholkularitza.

e) Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzako aholkularitza.

f) Lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua.

2.– Zorroko zerbitzu batzuek, banaka duten eginkizuna alde batera utzi gabe, funtzio transbertsala dute eta sistemaren egituratzaile dira, enplegu-zerbitzuen multzoari informazioa, euskarria edo atzeraelikadura ematen baitiote.

8. artikulua.– Pertsona eta entitate hartzaileak.

1.– Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren erabiltzaile izan daitezke pertsona fisikoak –langabeak edota okupatuak–, baldin eta, beren espektatiba edo eskakizunen arabera, enplegarritasuna hobetzeko eta lan duina lortzeko asmoz zorroko zerbitzuak eskatzen badituzte, bai eta hala eskatzen duten pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileak ere.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu- eta zerbitzu-eskatzaile gisa inskribatuta dauden edo zerbitzu-eskatzaile soilik diren pertsona guztiek Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen II. tituluan jasotako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte.

3.– Zerbitzu-eskatzaile izango dira apirilaren 30eko 438/2024 Errege Dekretuan – Enplegu Sistema Nazionalaren zerbitzu-zorro komuna garatzen du– araututako moduan inskribatzen direnak eta arau horretan zehaztutako eskakizunak betetzen dituztenak.

4.– Bereziki, zorroko zerbitzuak eskuratzeko aukera bermatuko zaie langabezia-egoerari edo jarduera-uzteari aurre egiteko babes ekonomikoa ematera bideratutako prestazioak, subsidioak edo bestelako errentak eskatzen edo jasotzen dituzten pertsonen, bai eta Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen onuradunei ere.

9. artikulua.– Kalitateari eta baliabideei buruzko eskakizun komunak.

1.– Zerbitzu-zorroko zerbitzuak emateaz arduratzen diren profesionalak beren eginkizunak behar bezala betetzeko behar diren etengabeko gaikuntza eta espezializazioa izan beharko dituzte. Horrek barnean hartuko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, genero-ikuspegiaren eta LGTBIQ+ arloko prestakuntza eguneratua. Langile kopuruak nahikoa izan beharko du Euskal Enplegu Sarearen Mapan ezarritako irizpideen araberrako arreta pertsonalizatu eta efizientea bermatzeko.

2.– Arreta-bulegoetako espazio fisiko eta materialek, bai eta erreminta teknologikoen eta zerbitzu elektronikoen ere, irisgarritasun unibertsala eta erabilgarritasuna bermatu beharko dituzte, batez ere desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

3.– Eusko Jaurlaritzan enpleguaren arloan eskumena duen sailak agindu baten bidez ezarriko ditu erreferentziazko edo arreta espezializatuko profesional bakoitzeko gehieneko biztanleria-ratioak, erabiltzaileei kalitatea eta arreta pertsonalizatu, jarraitu eta egokia bermatzeko.

4.– Adierazle kualitatibo eta kuantitatibo homogeen aplikatuko direla bermatuko da, sexuaren eta lehenetsunezko arreta behar duten kolektiboen arabera berezita, emaitzen etengabeko jarraipena egiteko eta emandako zerbitzuen kalitatea, efikazia, efizientzia eta eragina ebaluatzeko.

10. artikulua.– Zerbitzu-zorroa eguneratzea.

1.– Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa honako hauetara egokituko da: merkatuaren ezaugarrietara eta bilakaerara; biztanleria aktiboaren eta pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileen premietara; enplegu-politika publikoen plangintza estrategikoan identifikatutako lehentasunetara eta eskura dauden baliabideetara.

2.– Gainera, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen azken xedapenetako laugarrenean aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, enpleguaren arloan eskumena duen sailaren agindu baten bidez, aldatu egin ahal izango ditu legearen 25.1 artikulua d), e) eta f) letretan ezartzen diren zerbitzuak, bai eta lege horren 42. artikulutik 46.era bitartekoetan –biak barne– aipatzen diren arreta-, informazio- eta prospekzio-tresna komunak ere.

11. artikulua.– Kudeaketaren printzipio gidariak.

1.– Euskal Enplegu Sarean sartuta dauden entitateek, zorroan sartutako zerbitzuak ematean, aintzat hartuko dute Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legean aurreikusitakoa eta, hala badagokio, dekretu honetan xedatutakoa eta enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren aginduek sareko integrazioari buruz zehaztutakoa.

2.– Bereziki, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 47. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Euskal Enplegu Sarean sartutako entitateek printzipio hauek beteko dituzte zorroko zerbitzuak ematean: arreta integrala eta profesionala, irisgarritasun unibertsala, gardentasuna, kalitatea, trazabilitatea eta konpetentzia profesionalen araberrako kudeaketa.

3.– Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroan sartutako zerbitzuak, hala dagokionean, modu integratuan edo koordinatuan eskaini ahal izango dira arreta-ibilbideen edo -prozesuen esparruan, bat etorri arretarako eredu komunarekin eta Euskal Enplegu Sarearen eta bere Maparen Dekretuan aurreikusitakoarekin.

III. KAPITULUA

ARRETA, INFORMAZIO ETA PROSPEKZIORAKO TRESNA KOMUNAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

12. artikulua.– Tresna komunak.

1.– Tresna komunak dira Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitate guztiek erabili beharreko sistema, prozedura, metodologia eta baliabideen multzoa, zorroko zerbitzuak ematean honako hauek bermatzeko: jarduketan jarraitutasuna, kalitatea, homogeneotasuna, elkarreragingarritasuna, informazio partekatua eta koordinazioa pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileen arretan.

2.– Sarearen euskarri operatiboa dira, eta haien helburua da arreta integrala eta esku-hartzeen jarraitutasuna bermatzea, bai eta jarraipen homogeneoa eta emaitzen



ebaluazioa egitea ere, bat etorri Enpleguari buruzko 15/2023 Legean, Euskal Enplegu Estrategian eta Euskadiko Hiru Urteko Enplegu Planean aurreikusitako printzipio eta helburuekin.

13. artikulua.– Garapen teknikoa eta baldintzak.

1.– Tresna komun zehaztaren tekniko, erabilera-baldintzak, eguneratzea eta mantentzea enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko titularraren agindu baten bidez ezarriko dira, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak txostena egin ondoren.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa arduratuko da tresna komun diseinatu, mantendu eta kudeatzeaz. Eginkizun hori bete beharko du bermatuz betetzen dela datuen babesari, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan Euskadiko, Estatuko eta Europako sistemekiko elkarrengarritasunari, eta informazioaren segurtasunari buruzko araudia.

3.– Plataforma digital komuna erabiltzeak ez du baztertuko zorroko zerbitzuetarako sarbide presentziala. Bestalde, sarbide irisgarriak bermatuko dira eten digitala duten edo berariazko laguntza-premiak dituzten pertsonentzat.

14. artikulua.– Oinarrizko ezaugarriak.

Tresna komunek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Entitateen eta sistema integratuen arteko elkarrengarritasun tekniko eta etengabeko elkarrengarritasun bermatu.

b) Arreta eta zerbitzuak ematean kalitate-maila homogeenak bermatu.

c) Gauzatutako jardueraren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa ahalbidetu.

d) Erabiltzaileek datuen irispidearen, konfidentzialtasunaren eta babesaren arloan dauzkaten eskubideak babestu.

e) Teknologiararen aldetik egokitu eta eguneratu, aurrerapen teknikoen eta sarean detektatutako premien arabera etengabeko bilakaera ahalbidetu.

15. artikulua.– Tresna motak.

1.– Tresna komunak izango dira gutxienez honako hauek:

a) Arreta eta jarraipenerako tresna komuna. Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileekin garatutako jarduketak diagnostikatu, planifikatu, gauzatu eta ebaluatzeko prozesuak artikulatzen ditu.

b) Lan-historia bakarra. Erabiltzaileen informazio indibidualizatua eta enpleguaren, prestakuntzaren eta orientazioaren arloan egin duten ibilbidearen informazioa biltzen ditu.

c) Enpresa-espeditente bakarra. Modu sistematizatuan jasotzen du enpresa eta entitate enplegatzaileen egoerari, premiei, jarduketei eta emaitzei buruzko informazioa. Espeditente hori erreferentziatzeko tresna da enpresa-premien prospekzioa egiteko eta

haiei zuzendutako zorro-zerbitzuak emateko, egindako jarduketan trazabilitatea bermatuz.

d) Informazio-, ebaluazio-, prospekzio- eta koordinazio-sistema komunak. Sareko zerbitzuak aplikatzean elkarreragingarritasuna eta homogeneotasuna bermatzen dituzte.

e) Identitate komuneko eta euskarri operatiboko baliabideak, barnean direla eskuliburu metodologikoak, jarduketa-protokoloak eta kudeaketa partekatuko sistemak.

2. Eusko Jaurlaritzan enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularrak, agindu baten bidez, aurreko apartatuan aurreikusitakoez bestelako tresnak sortu eta arautu ahal izango ditu, enplegu-politikak behar bezala garatzeko beharrezkoa denean.

2. ATALA

ARRETA ETA JARRAIPENERAKO TRESNA KOMUNA

16. artikulua.– Arreta eta jarraipenerako tresna komuna.

1.– Arreta eta jarraipenerako tresna komuna sistema bateratu bat da, zeinak Euskal Enplegu Sarearen eremuan pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileei arreta emateko prozesuen kudeaketa integral eta trazagarria bermatzen duen.

2.– Tresna horrek ibilbide edo jarduketa bakoitza diagnostikatzeko, planifikatzeko, gauzatzeko, ebaluatzeko eta ixteko prozesuak artikulatzen ditu, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak definitutako protokolo eta metodologia komunen arabera.

3.– Tresnak honako hauek ahalbidetuko ditu:

a) Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileekin egindako jarduketa guztiak erregistratzea.

b) Lan-historia bakarrarekin eta enpresa-espeditente bakarrarekin automatikoki lotzea.

c) Emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea, adierazle homogeen eta egiaztagarrien bidez.

4.– Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroan sartu ahal izateko, beharrezkoa izango da arreta eta jarraipenerako tresna komunean erregistratzea.

5.– Enplegu-eskaeraren kudeaketa –haien administrazio-egoerak, ondoreak eta aldaketak barne– Enplegu Sistema Nazionalaren zerbitzu-zorro komuna arautzen duen Estatuko araudian xedatutakoaren mende egongo da, alde batera utzi gabe funtzionalki Euskal Enplegu Sarearen tresna komunean integratzea.

3. ATALA

LAN-HISTORIA BAKARRA

17. artikulua.– Lan-historia bakarra.

1.– Lan-historia bakarra Euskal Enplegu Sarearen erabiltzaile bakoitzaren enpleguari buruzko egoerari, ibilbideari eta jarduketei buruzko informazio guztia biltzen duen tresna

komuna da, eta sarea osatzen duten entitateek egindako esku-hartzeen jarraitutasuna eta osagarritasuna bermatzen du.

2.– Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitate guztiek erabili beharko dute lan-historia bakarra, informazioaren elkarreragingarritasuna, zerbitzuak ematean homogeneotasuna eta jarduketan trazabilitatea ziurtatzeko.

3.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak lan-historia bakarra egiteko, eguneratzeko, kontserbatzeko eta erabiltzeko ezaugarriak zehaztuko ditu, eta honako hauek bermatuko ditu:

a) Bateragarria izatea Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legean aurreikusitako lan-espediente bakar pertsonalizatuarekin.

b) Datu pertsonalak babesteko araudia betetzea.

c) Erabiltzaileek datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko, aurka egiteko eta ezerezteko eskubideak egikaritzea.

18. artikulua.– Gutxieneko edukia.

Lan-historia bakarrak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

a) Erabiltzailearen identifikazio-datuak eta lanbide-egoera.

b) Triajearen eta enplegarritasun-diagnostikoaren emaitza.

c) Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP).

d) Egindako jarduketak eta jasotako zerbitzuak.

e) Kudeatutako enplegu-eskaintzak eta, hala badagokio, formalizatutako kontratuak.

f) Lanerako prestakuntza-ekintzak eta enplegu-sistemaren esparruan lortutako egiaztagiri edo ziurtagiriak.

g) Enpleguari edo enplegarritasunari lotutako prestazio edo subsidioak.

19. artikulua.– Kontserbazioa eta erantzukizunak.

1.– Lan-historia bakarra iraunkorra izango da, eta pertsonaren bizitza profesional osoan zehar eta legez ezarritako preskripzio-epeetan gordeko da.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa arduratuko da lan-historia bakarra zaindu eta eguneratzeaz, eta informazioaren elkarreragingarritasuna, osotasuna eta trazabilitatea bermatuko ditu.

3.– Sareko entitateak izango dira sartzen dituzten datuen egiazkotasunaren eta eguneratzearen erantzule.

4.– Betebehar horiek ez betetzeak indarrean dagoen araudian aurreikusitako diziplina-erantzukizunak, ondare-erantzukizunak edo bestelako erantzukizunak eragin ahal izango ditu.

20. artikulua.– Sarbidea eta konfidentzialtasuna.



1.– Hauek bakarrik sar daitezke lan-historia bakarrean:

- a) Euskal Enplegu Sarea osatzen duten eta zerbitzuak ematen parte hartzen duten entitateetako langile baimenduak.
- b) Beren legezko eskumenen esparruan jarduten duten ikuskapen- edo kontrol-organoak.
- c) Informazioaren titularra. Gainera, datuak babesteko araudian aitortutako eskubideak baliatu ahal izango ditu.

2.– Lan-historia bakarrean sartzen diren pertsona eta entitate guztiek zorrozki bete beharko dute konfidentziasunaren eta sekretu profesionalaren eginbeharra, bermatuz datu pertsonalak babestuta daudela baimenik gabeko sarbideen, bidegabeko zabalkundearen edo legez aurreikusi gabeko erabileraren aurrean.

3.– Erregistro-, kontrol- eta trazabilitate-protokoloak ezarriko dira lan-historia bakarrean sartzeari dagokionez, erabiltzaileen erantzukizuna eta informazioaren segurtasuna bermatzeko.

21. artikulua.– Eskuratzeko, zuzentzeko eta kopiatzeko eskubideak.

1.– Erabiltzaileak eskubide hauek izango ditu:

- a) Bere lan-historia bakarrean jasotako informazio guztia eskuratzea.
- b) Datuen kopia formatu eskuragarrian eskatzea, jasotako zerbitzuen dokumentu, plan eta erregistroak barne.
- c) Bere datuak zuzentzea, osatzea edo tratamenduaren aurka egitea, datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera.

2.– Eskuratzeko, zuzentzeko edo kopiatzeko eskaerak arreta eta jarraipenerako tresna komunaren bidez izapidetuko dira, eta indarrean dagoen legeriak aurreikusitako epeetan emango zaie erantzuna.

3.– Gorabeherarik gertatuz gero lan-historia bakarra eskuratzean, aldatzean edo kontserbatzean, gorabehera hori erregistratu egin beharko da eta erabiltzaileari jakinarazi beharko zaio, betiere gardentasuna, trazabilitatea eta balizko errore edo irregulartasunen aurrean babes juridikoa bermatuz.

4. ATALA

ENPRESA-ESPEDIENTE BAKARRA

22. artikulua.– Enpresa-espediente bakarra.

1.– Enpresa-espediente bakarra da enpresa eta entitate enplegatzaile erabiltzaile bakoitzak Euskal Enplegu Sarean egiten dituen jarduketei buruzko informazio guztia biltzen duen tresna komuna, eta ziurtatzen ditu premien prospekzioa, enpresa horiei zuzendutako zorroko zerbitzuen prestazioa eta jarduketa horien trazabilitatea.

2.– Espedientean honako hauek jasoko dira gutxienez:

- a) Enpresaren identifikazioari eta jarduerari buruzko oinarritzko datuak.

- b) Aurkeztutako eta kudeatutako enplegu-eskaintzen historia.
 - c) Jasotako aholkularitza-, prospekzio- eta laguntza-zerbitzuak.
 - d) Tokiko enplegu-, prestakuntza- eta garapen-programetan parte hartzea.
 - e) Bere eskaintzei edo programei lotutako laneratzearen emaitzak.
- 3.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari dagokio espedientea kudeatzea, gainerako entitateekin koordinatuta.
- 4.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ezarriko ditu enpresa-espediente bakarra taxutu, eguneratu, kontserbatu eta erabiltzeko baldintza teknikoak, honako hauek bermatuz:
- a) Bateragarria dela autonomia-erkidegoko eta estatuko enplegu- eta prestakuntza-sistemekin.
 - b) Errespetatzen duela datu pertsonalak eta enpresa-datuak babesteko araudia.
 - c) Enpresa eta entitate enplegatzaileek eskubidea dutela beren informaziora irispidea izateko eta informazio hori zuzentzeko.

5. ATALA

BESTE TRESNA KOMUN BATZUK

23. artikulua.– Enplegu-, prestakuntza- eta zerbitzu-eskaintzen informazio eta kudeaketarako tresna.

1.– Euskal Enplegu Sarean dauden enplegu-eskaintzei, prestakuntza-programei eta zerbitzuei buruzko informazio guztia zentralizatzen eta kudeatzen duen tresna komuna da, eta erabakiak hartzen eta erabiltzaileei arreta ematen laguntzen du.

2.– Honako hauek bermatzea du helburu:

- a) Eskaintzak modu homogeenan zabaldu eta kudeatzea.
- b) Enpleguari eta prestakuntzari buruzko datuak etengabe eguneratzea.
- c) Pertsona, enpresa, entitate enplegatzaile eta entitate erabiltzaileei sarbidea erraztea.

3.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa arduratuko da tresna diseinatu, mantendu eta garatzeaz. Bermatuko du tresna elkarreragingarria dela sarearen informazio-sistemeekin eta lan-historia bakarrekin, bai eta Enplegu Sistema Nazional osoari estaldura ematen dioten beste sistema batzuekin ere.

24. artikulua.– Pertsonak profilatzeko erreminta.

1.– Erabiltzaileak beren enplegarritasunaren, premien eta laneratzeko potentzialaren arabera ezaugarritzeko eta sailkatzeko aukera ematen duen tresna komuna da, arreta pertsonalizatzeko eta enplegu-politikak planifikatzeko.

2.– Hauek dira bere helburuak:

- a) Banakako ekintzak programatzeko eta zuzeneko arreta emateko baliagarria izatea.

- b) Enplegu-baliabide eta -programen plangintza estrategikoa egiten laguntzea.
 - c) Zerbitzuak esleitzean berdintasuna, diskriminaziorik eza eta gardentasuna bermatzea.
- 3.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak profilatze-metodologiak eta eguneratze-irizpideak zehaztuko ditu, eta datuak lan-historia bakarrean sartzen direla ziurtatuko du.

25. artikulua.– Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia.

1.– Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuari, prestakuntzari eta enplegu-politiken efikaziari buruzko informazio estrategikoa analizatu, aztertu eta zabaltzeko ardura duen tresna komuna da.

2.– Bere egitekoak hauek dira, besteak beste:

a) Enpleguari, okupazioari eta prestakuntzari buruzko adierazle eta estatistikak sistematikoki biltzea.

b) Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailari eta sarea osatzen duten entitateei zuzendutako txosten, azterlan eta gomendioak egitea.

3.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa arduratuko da behatokiak sortutako informazioa teknikoki koordinatzeaz, eguneratzeaz eta hedatzeaz.

4.– Sarea osatzen duten entitate guztiek lagundu beharko dute behatokiari informazioa eta datuak ematen, haien kalitatea eta homogeneotasuna bermatuz.

IV. KAPITULUA

ZORROAN SARTUTAKO ZERBITZUAK

26. artikulua.– Zorroan sartutako zerbitzuak.

1.– Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroan sartutako zerbitzuak dekretu honen 7. artikuluan zehaztutakoak dira.

2.– Zerbitzu-zorrotik kanpo geratzen dira barne-kudeaketako, administrazio-euskarriko, plangintzako, koordinazioko eta kontrol operatiboko prozesuak, bai eta erabiltzaileei prestaziorik edo zuzeneko eskubiderik ematen ez dien beste edozein prozesu ere, hargatik eragotzi gabe halakoak jarraibide teknikoan edo barne-protokoloen bidez arautzea.

27. artikulua.– Zerbitzu-zorroko zerbitzuen egitura teknikoa.

1.– Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroan sartutako zerbitzuak egitura tekniko komun baten arabera konfiguratuta daude, Euskal Enplegu Sare osoan prestazioaren homogeneotasuna, konparagarritasuna eta kalitatea bermatzeko.

2.– Dekretu honen ondoretarako, zerbitzu bakoitzak egitura-maila hauek ditu:

a) Zerbitzua: zorroaren oinarriko unitate funtzionala. Zorroaren xedea, helburua, irismena eta lotutako eskubideak definitzen ditu.

b) Osagaia: zerbitzuaren zati bereziak osatzen dituzten eta haren artikulazio operatiboa ahalbidetzen duten funtzio homogeneoen multzo antolatua.

c) Jarduera: jarduketa zehatz, estandarizatu eta teknikoki ebaluagarria. Haren bidez gauzatzen dira osagaiak eta ematen da zerbitzua.

d) Produktua: emaitza egiaztagarri eta neurgarria, pertsona erabiltzaileari edo entitate hartzaileari zuzenean entregatzen zaiona, jarduera bat edo gehiago egitearen ondorioz.

3.– Euskal Enplegu Sarearen Maparen eta entitate emaile bakoitzari dagozkion integrazio-mailen arabera egingo da zorroan sartutako zerbitzuen lurralde- eta funtzio-banaketa, kontuan hartuta sarean duten integrazio-maila.

4.– Zerbitzu bakoitzeko osagai, jarduera eta produktuen identifikazioa eta garapen teknikoa enpleguaren arloan eskumena duen sailaren titularraren aginduaren bidez ezarriko dira, hargatik eragotzi gabe zorroa eguneratzeari buruzko artikuluan aurreikusitakoa, dekretu honen I. eranskinean jasotako egitura eta deskribapen funtzionaletatik abiatuta –dena den, horrek ez ditu aldaraziko zorroan definitutako zerbitzuen edukia, irismena edo izaera–. Eguneratzeari dagokionez, 10. artikuluan xedatutakoa beteko da.

1. ATALA

ENPLEGURAKO ORIENTAZIO-ZERBITZUA

1. azpiatala.

Xedapen orokorrak

28. artikulua.– Enplegurako orientazio-zerbitzua.

1.– Enplegurako orientazio-zerbitzuaren xedea da, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 30. artikuluan adierazitakoaren arabera, erabiltzaileari laguntza-prozesu pertsonalizatua eskaintzea, barnean hartuz informazioa, diagnostiko individualizatua, aholkularitza eta laguntza jarraitua. Zerbitzuaren helburuak hauek dira: erabiltzailearen enplegarritasuna hobetzea, kalitatezko enplegu baterako irispidea erraztea, garapen profesionala indartzea eta ekintzaitetza-ekimenak bultzatzea.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari dagokio zerbitzu hori ematea, zuzenean edota Euskal Enplegu Sarean sartuta dauden entitate laguntzaileen bitartez, eta betiere ekintza-batasunaren, koherentziaren, kalitatearen, efizientziaren eta erakundearteko koordinazioaren printzipioak betez.

29. artikulua.– Zerbitzua eskuratzeko eskakizunak eta doakotasuna.

1.– Enplegurako orientazio-zerbitzua doan emango zaie Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan inskribatuta dauden pertsona guztiei, haien administrazio- edo lan-egoera edozein dela ere, eta betiere unibertsaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideak betez.



2.– Zerbitzua modu pertsonalizatu, jarraitu, egoki, integral eta inklusiboan emango da, aukera-berdintasuna, genero-ikuspegia, irisgarritasun unibertsala eta aniztasunaren arreta bermatuz.

3.– Zerbitzua eskuratzeko modua presentziala, elektronikoa edota mistoa izaten ahalko da. Desgaitasunaren edo eten digitalaren kasuetan, laguntza-kanal alternatiboak erabiltzeko aukera bermatu beharko da.

4.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bermatuko du zerbitzua eskuratzeko eskakizunei eta prozedurei buruzko informazio ulergarria aurretiaz dagoela eskuragarri.

30. artikulua.– Erabiltzaileen eskubideak.

Enplegurako orientazio-zerbitzuaren erabiltzaileek eskubide hauek dauzkate:

- a) Arreta pertsonalizatua, egokia, integrala eta jarraitua jasotzea erreferentziazko profesional baten eskutik, hezkuntzaren eta enpleguaren arteko lan-trantsizioetan edo enplegu- eta langabezia-egoeren artekoetan.
- b) Beren enplegarritasunari buruzko diagnostiko indibidualizatua lortzea (besteak beste, triajea, enplegu-eskaria eta enplegarritasun-balorazioa), eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatu (EPIP) bat egitea.
- c) Informazio eguneratua eskuratzeko lan-merkatuari, prestakuntza-eskaintzari eta enplegu- nahiz autoenplegu-aukerei dagokienez.
- d) Beren ibilbidearen definizioan eta jarraipenean aktiboki parte hartzea.
- e) Zerbitzuak berdintasun-, irisgarritasun- eta konfidentzialtasun-baldintzetan jasotzea.
- f) Beren eskubideei, betebeharrei eta erreklamazio-bideei buruzko informazioa jasotzea.
- g) Arreta errespetuz, konfidentzialtasunez eta beren hizkuntza-eskubideak bermatuz jasotzea.
- h) Lan-historia bakarria irispidean izatea eta jasotako zerbitzuak ezagutzea.

31. artikulua.– Erabiltzaileen eginbeharrak.

Erabiltzaileek eginbehar hauek dauzkate:

- a) Beren EPIPe an adostutako ekintzen garapenean aktiboki parte hartzea.
- b) Diagnostikorako eta orientaziorako beharrezkoa den informazio egiazkoa eta osoa ematea.
- c) Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin formalizatutako jarduera-akordiotik eratorritako konpromisoak betetzea.
- d) Beren enplegarritasunari edo eskuragarritasunari eragin diezaiokeen edozein aldaketa garrantzitsuren berri ematea.
- e) Enplegu-zentroen eta Euskal Enplegu Sarearen funtzionamendu-arauak errespetatzea.

32. artikulua.– Prestazio teknikoak.

Enplegurako orientazio-zerbitzuak honako prestazio tekniko bermatu hauek biltzen ditu:

- a) Hasierako triajea eta premien hautematea.
- b) Enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala.
- c) Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP).
- d) Tutoretza, aholkularitza jarraitua eta laguntza.
- e) Laguntza-, motibazio- eta informazio-zerbitzu eta -programak.
- f) Ibilbidea kudeatzeko eta enplegua bilatzeko baliabide teknologikoetara eta laguntza-espazioetara sarbidea.

2. azpiatala

Triajea

33. artikulua.– Triajea.

1.– Triajea erabiltzailearen premiak baloratzeko hasierako prozesua da, eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak egiten eta kudeatzen du. Gizarteratze- eta laneratze-premiak hautematera bideratuta dago, baita ongizate-estatuko beste sistema batzuek esku hartzeko egokitasuna zehaztera ere, urgentzia-, konplexutasun- eta egokitasun-irizpideak kontuan hartuta.

2.– Triajearen helburua da enplegu-eskatzailea bere egoerari ondoen egokitzen zaion laguntza-motarantz garaiz eta arin orientatzea, enplegu-sistemaren barruan eta, hala dagokionean, beste sistema batzuekin koordinatuta, sektorearteko lankidetzaren esparruan.

34. artikulua.– Prozesua.

1.– Triajea egingo da Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan hasierako inskripzioa egin ondoren, eta oinarria izango da bai diagnostiko pertsonala egiteko eta bai enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua diseinatzeko.

2.– Triajea egingo da Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak onetsitako metodologia komunaren arabera eta dagokion erreminta teknikoa erabiliz.

3.– Triajearen emaitza tresna komunetan erregistratuko da, bere trazabilitatea bermatzeko, eta lan-historia bakarrean jasoko da. Triajetik ondorioztatzen denean ongizate-estatuko beste sistema batzuen arretaren premia dagoela, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak dagokion deribazioa egingo du, erakundearteko protokoloen arabera.

35. artikulua.– Eduki teknikoa.

Triajearen eduki teknikoak honako hauek jasoko ditu gutxienez:

- a) Pertsonaren egoera pertsonalaren eta profesionalaren hasierako balorazioa, aurrez definitutako itemen bidez.

b) Gizarte-, osasun- edo hezkuntza-sistemetara bideratzeko egon daitezkeen premien identifikazioa.

c) Pertsonen elkartzea, laguntza-intentsitatearen mailetan, hautemandako premietan oinarrituta: puntuala, trinkoa edo koordinatua.

3. azpiatala

Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala

36. artikulua.– Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala.

1.– Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala hasierako triajearen ondoren egiten den balorazio teknikoa da, eta aukera ematen du aztertzeko, batetik, erabiltzailearen egoera pertsonala, prestakuntza-egoera eta egoera profesionala, eta, bestetik, erabiltzaileak enplegua lortzeko, mantentzeko edo hobetzeko orduan eragina duten faktoreak.

2.– Diagnostikoa egingo da hasierako orientazio-jarduketetan –besteak beste, triajearen, elkarrizketan, eskaria eguneratzean eta enplegarritasuna baloratzean– lortutako informazioan oinarrituta, eta pertsonaren egoerari buruzko ikuspegi orokorra izateko beharrezkoak diren elkarrizketa eta kontrasteekin osatuko da.

3.– Diagnostiko horren helburua da enplegarritasunarekin lotutako indarguneak, premiak eta balizko oztopoak identifikatzea, eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP) diseinatzeko jarduketarik egokienak zehaztea.

4.– Diagnostikoak elementu hauen balorazioa jasoko du gutxienez:

a) Prestakuntza- eta lanbide-ibilbidea.

b) Konpetentzia profesional eta transbertsalak.

c) Lan-egoera, prestasuna eta enplegua bilatzeko edo hobetzeko baldintza garrantzitsuak.

d) Kualifikazio-, birkualifikazio- edo aktibazio-premiak.

e) Beste sistema batzuekiko koordinazioa eska dezaketen faktore pertsonal edo sozialak.

5.– Diagnostikoa oinarri gisa erabiliko da enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP) egiteko, eguneratzeko eta jarraipena egiteko. Plan horretan, erabiltzailearen eta orientazio-zerbitzuaren artean adostutako jarduketak eta konpromisoak jasoko dira.

37. artikulua.– Irizpideak.

Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonalak irizpide hauen arabera egingo dira:

a) Integraltasuna: diagnostikoak enplegarritasuna baldintzatzen duten faktore guztiak hartu beharko ditu kontuan, bai lanarekin, prestakuntzarekin eta konpetentziekin lotutakoak, bai sozialak edo pertsonalak.

- b) Pertsonalizazioa: diagnostikoa erabiltzaile bakoitzaren profilerara, ibilbidera eta egoerara egokituko da, eta kontuan hartuko ditu haren testuingurua eta motibazioa.
- c) Koherentzia metodologikoa: diagnostikoa Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ezartzen dituen metodologia komun eta irizpide teknikoaren arabera egingo da, une bakoitzean erabilgarri dauden erreminta homogeneoak erabiliz eta arrazoitutako balorazio profesionalean oinarrituz, prozesuaren sendotasuna eta trazabilitatea bermatuta.
- d) Homogeneotasuna: Euskal Enplegu Sareko entitate guztiek metodologia eta adierazle berberak erabiliko dituzte.
- e) Trazabilitatea eta erregistroa: diagnostikotik eratorritako informazio guztia Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren informazio partekatuaren sisteman sartuko da, ibilbidearen koherentzia, jarraitutasuna eta jarraipena bermatuz.

Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonalari lotutako irizpide metodologikoak eta tresna teknikoak pixkanaka aplikatuko dira, erreminta komun garapen- eta eskuragarritasun-mailaren arabera, eta ezertan eragotzi gabe balorazio profesional arrazoituaren baliozkotasuna.

38. artikulua.– Metodologia komuna.

1.– Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala metodologia komun baten arabera egingo da. Metodologia horrek fase hauek izango ditu gutxienez:

- a) Hasierako informazioa jasotzea, elkarrizketa egituratuaren eta dokumentu-analisiaren bidez.
- b) Konpetentziak eta lanbidea baloratzea, kualifikazio formalak, konpetentzia transbertsalak eta prestakuntza-premiak identifikatzeko aukera ematen duten tresna normalizatuen bidez.
- c) Enplegarritasun-maila zehaztea, pertsona bere enplegarritasun-mailaren eta hautemandako oztopoen arabera sailkatuz.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak metodologia komun bat ezarriko du enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egiteko, eta haren koherentzia, homogeneotasuna eta kalitatea bermatuko du Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitate guztietan.

3.– Metodologia komunak zehaztuko ditu balorazio tekniko sendo eta alderagarria ziurtatzeko beharrezkoak diren oinarritzko elementu, irizpide eta prozedurak, hala nola:

- a) Diagnostikoaren gutxienerako osagaiak.
- b) Diagnostikoa egiteko eta erregistratzeko tresna komunak.
- c) Beste sistema batzuekin koordinatzeko irizpideak, sektorearteko esku-hartzearen premia dagoenean.
- d) Diagnostikoa berrikusteko eta eguneratzeko jarraibideak, erabiltzailearen egoeraren bilakaeraren arabera.

4.– Metodologiak ikuspegi integrala bermatuko du, ebidentzietan oinarrituta eta pertsonarengan zentratuta, eta pertsonak aktiboki parte hartuko du orientazio-prozesuaren fase guztietan.

5.– Euskal Enplegu Sarean sartuta dauden entitateek metodologia komuna erabiliko dute diagnostiko-jarduketak egitean; dena den, egokitzapenak egin ahal izango dituzte kolektibo jakin batzuen berariazko premiei erantzuteko, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ezartzen duen garapen teknikoaren arabera.

39. artikulua.– Adierazle komunak.

1.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak adierazle komunen sistema bat ezarriko du erabiltzaileen enplegarritasunean eragina duten faktoreak baloratzeko, enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egiten laguntzeko eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua definitzen laguntzeko.

2.– Adierazle komunek aukera emango dute Euskal Enplegu Sare osoan balorazio homogeneo eta konparagarria izateko, premiak identifikatzeko, jarduketak lehenesteko eta, hala badagokio, beste babes- edo laguntza-sistema batzuetara bideratzeko.

3.– Adierazle-sistemak honako hauekin lotutako arloak jasoko ditu gutxienez:

a) Prestakuntza- eta lanbide-ibilbidea.

b) Konpetentzia profesional eta transbertsalak.

c) Lan-baldintzak eta prestasuna.

d) Kualifikazio-, birkualifikazio- edo aktibazio-premiak.

e) Beste sistema batzuekin modu koordinatuan esku hartzea eska dezaketen faktore pertsonal edo sozialak.

4.– Adierazleak Lanbidek ezarritako metodologia komunaren arabera aplikatuko dira, eta informazio-sistema korporatiboetan erregistratuko dira, haien trazabilitatea eta eguneratzea bermatuz.

5.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak aldian-aldian berrikusi eta eguneratu egingo du adierazle-sistema, lan-merkatuaren, enplegu-politika aktiboen eta artatutako kolektiboen beharretara egokitzeko.

40. artikulua.– Erregistro-sistema eta trazabilitatea.

1.– Diagnostikoak Euskal Enplegu Sarearen informazio-sisteman dokumentatuko dira, formatu elektronikoko normalizatuan.

2.– Diagnostiko bakoitzak identifikatzaile bakar bat sortuko du, zeinak aukera emango duen dagokion enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuarekin (EPIP) lotzeko.

3.– Sistemak erabiltzailearen ibilbidearen trazabilitatea bermatuko du, eta entitate akreditatuek eguneratu eta kontsultatu egin ahal izango dute.

41. artikulua.– Jarraipena eta kalitate-kontrola.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak dagozkion mekanismoak ezarriko ditu auditoretza teknikoak egiteko eta egindako diagnostikoak aldian-aldian egiaztatzeko.

42. artikulua.– Berrikuspena.

1.– Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala berrikustearen xedea da erabiltzailearen lan- eta kompetentzia-egoeraren bilakaera egiaztatzea, bai eta haren plan pertsonalizatua jazo diren aldaketetara egokitzea ere.

2.– Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala tresna dinamikoa izango da, eta berrikusi ahal izango da erabiltzailearen egoera pertsonalean, prestakuntzan edo lan-egoeran aldaketa garrantzitsuak gertatzen direnean edota orientazio-zerbitzuak egindako jarraipenak hala eskatzen duenean.

3.– Diagnostikoa berrikusi ahal izango da erabiltzailearen ekimenez, orientazio-zerbitzuaren ekimenez edota Euskal Enplegu Sarea osatzen duten eta prozesuan parte hartzen duten entitateen ekimenez.

4.– Diagnostikoa eguneratuko da informazio kontrastatu berria hartuz oinarritzat, eta eguneratze hori informazio-sistema komunetan erregistratuko da, lan-historia bakarrean txertatuz eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuarekiko (EPIP) koherentzia bermatuz.

5.– Berrikuspenak nabarmen aldatzen dituenean identifikatutako premiak edo ezarritako helburuak, EPIPa eguneratu egingo da, dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera.

43. artikulua.– Diagnostikoaren eta prestakuntzarako sarbidearen arteko erlazioa.

1.– Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonalaren ondorioek aukera emango dute erabiltzaile bakoitzaren lehentasunezko prestakuntza-premiak identifikatzeko, eta orientatu egingo dute enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuan (EPIP) sartutako prestakuntza-ekintzen proposamena, bat etorri erabiltzailearen profil profesionalarekin, esperientziarekin eta adostutako helburuekin.

2.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko, lanerako prestakuntza-zerbitzuaren berriazko araudia eta dagozkion ekimenak bete beharko dira. Diagnostikoak ez du, berez, ekintza horiek eskuratzeko lehentasunezko eskubiderik ematen. Hala ere, diagnostikoa eta EPIP erreferentzia gisa erabili ahal izango dira deribazioa orientatzeko eta prestakuntzarik egokienean inskribatzen laguntzeko.

3.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak orientazio- eta prestakuntza-zerbitzuen arteko koordinazioa sustatuko du, diagnostikoetan identifikatutako prestakuntza-premiak kontuan har daitezkeen prestakuntza-eskaintza programatzean eta planifikatzean.

4.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartzearen emaitzak informazio-sistema komunetan erregistratuko dira, eta enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonalaren berrikuspenetan baloratu ahal izango dira, dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera.

44. artikulua.– Enplegarritasuna hobetzeko betebeharrak ez betetzea justifikatzen duten inguruabarrak.

1.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatutik (EPIP) eratorritako betebeharrak ez betetzea justifikatzen duten inguruabartzat hartuko dira betebeharrak horiek betetzea eragozten edo zailtzen dutenak, betiere behar bezala egiaztatzen badira.

2.– Inguruabar horiek Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonaletik eratorritako betebeharrak ere aplikatuko zaizkie, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onesten duen azaroaren 21eko 173/2023 Dekretuan ezarritako moduan.

3.– Besteak beste, honako hauek hartuko dira halakotzat:

a) Norberaren edo bere ardurapeko mendeko pertsonen gaixotasuna, istripua edo egoera medikoa, parte edo txosten mediko bidez egiaztatuta.

b) Amatasuna, aitasuna, adopzioa, harrera edo genero-indarkeriako egoerak.

c) Norberaren edo familiaren bizitza eta lana kontziliatzeko betebeharrak, arrazoizko alternatibarik ez dagoenean.

d) Egokitasunik edo loturarik eza proposatutako jardueraren edo ekintzaren eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuaren (EPIP) edukiaren artean edo erabiltzailearen lanbide-profilaren artean.

e) Betetzeko zailtasun bereziak eragiten dituzten inguruabar ekonomikoak, aldi baterakoak edo geografikoak, hala nola gehiegizko garraio-kostuak, ordutegi-bateraezintasuna edo arrazoizko joan-etorrietarako baliabiderik eza.

f) Parte-hartzea aldi baterako eragozten duen ezinbesteko kasua edo gerora sortutako kausa.

g) Erabiltzaileari egotzi ezin zaion akatsa, gabezia edo administrazio-koordinaziorik eza.

4.– Arrazoi horiek proportzionaltasunaren, ekitatearen eta zaurgarritasun-egoeraren errespetuaren printzipioen arabera baloratu beharko dira.

45. artikulua.– Justifikazio-inguruabarrak hautemateko prozedura.

1.– Justifikazio-arrazoiak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrean alegatu beharko dira, eta dokumentuen bidez egiaztatu, gertaera eragilea jazo denetik gehienez hamabost egun balioduneko epean. Hala ere, ezohiko egoeretan luzatu egin ahal izango dira epe horiek.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak informazio edo dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango du, eta ebazpen arrazoitua emango du, hala badagokio, betetzetik guztiz edo partzialki askatuta dagoela aitortuz.

3.– Justifikazio-arrazoia dagoela hautematean:

a) Aldi baterako eten egingo dira enplegagarritasuna hobetzeko jardueretan parte hartzeko betebeharrak.

b) Ez-betetzeagatiko zehapen edo neurri zuzentzaileak ez da ezarriko, kausak irauten duen bitartean.

4.– Justifikatutako arrazoiak eta horien ondoreak erabiltzailearen espediente elektronikoan erregistratuko dira, eta kontuan hartuko dira enplegarritasunari buruzko diagnostikoa berrikustean.

46. artikulua.– Erakundearteko koordinazioa.

1.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak toki-entitateetako gizarte-zerbitzuekin, prestakuntza-entitateekin eta Euskal Enplegu Sareko beste eragile batzuekin koordinatuko du osasunarekin, kontziliazioarekin edo gizarte-zaugarritasunarekin lotutako justifikazio-inguruabarren balorazioa.

2.– Jarduteko eta deribatzekeko protokolo komunak ezarriko dira, bermatuz justifikazio-arrazoiak lurralde osoan modu homogeneo eta ekitatiboan interpretatzen direla.

3.– Entitate laguntzaileek jakinarazi egin beharko dute betebeharrak betetzean edo enplegarritasunari buruzko diagnostikoa berrikustean eragina izan dezakeen edozein gorabehera garrantzitsu.

47. artikulua.– Jarraipena eta ebaluazioa.

1.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak jarraipen-txosten bat egingo du urtero enplegarritasunari buruzko diagnostikoaren aplikazioari buruz, enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuaren (EPIP) berrikuspenari buruz eta aitortutako justifikazio-arrazoiari buruz.

2.– Txosten hori Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluari helaraziko zaio, lan-aktibaziorako eta laguntzarako tresnak ebaluatzeke eta hobetzeko proposamena egin dezan.

4. azpiatala

Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua

48. artikulua.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua.

1.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP) Euskal Enplegu Sarearen tresna da, zeina bideratuta dagoen erabiltzailearen enplegarritasuna hobetzera eta laneratzea erraztera bideratutako jarduketak antolatzea, enplegarritasun-diagnostikoarekin bat etorritik. Diagnostikoa egin ondoren Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta erabiltzaileak adostutako ibilbide pertsonalizatua formalizatzen duen laguntza soziolaboraleko prozesurako erreferentzia-esparrua da.

2.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuak (EPIP) funtsezko elementu hauek jaso ahal izango ditu:

a) Helburu profesionalak eta enplegarritasuna hobetzeko helburuak, erabiltzailearekin adostuta eta diagnostikotik eratorrita.

b) Orientazio-, laguntza- eta aktibazio-jarduketak.

c) Konpetentziak hobetzeko, birkualifikaziorako edo prestakuntzarako ekintzak, eskura dagoen eskaintza eta identifikatutako premiak kontuan hartuta.

- d) Laneratzeko edo ekintzaitzarako jarduketak, erabiltzailearen profilerako egokiak direnean.
- e) Aurreikusitako jarduketaren sekuentzia orientatibo eta malgua.
- f) Prozesuaren jarraipen eta berrikuspenerako mekanismoak.

49. artikulua.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizuaren izaera eta koordinazioa.

1.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP) dinamikoa izango da, eta berrikusi ahal izango da aldaketa garrantzitsuak gertatzen direnean erabiltzailearen egoera pertsonalean, sozialean, prestakuntzan edo lan-egoeran edota jarraipenak hala gomendatzen duenean.

2.– Erabiltzaileak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duenean edo inklusio-prozesurako beste babes-sistema batzuen jarduketak eskatzen dituenean, haren esku-hartzea garatu ahal izango da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean aurreikusitako Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren (IPIP) esparruan.

3. – Kasu horietan, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bi tresnen arteko koordinazioa bermatuko du; horrela, enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuak (EPIP) –Euskal Enplegu Sarearen jarduketa soziolaboraletan zentratuta– bere esku-hartze eremuari dagozkion jarduketak integratu ahal izango ditu, eta Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalak (IPIP) beste sistema batzuetako jarduketak jaso ahal izango ditu. Koordinazio horrek prozesuaren koherentzia globala ziurtatuko du eta bikoiztasunak saihestuko ditu, sistema bakoitzaren berezko eskumenak errespetatuz.

50. artikulua.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizuaren formalizazioa eta ondoreak.

1.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP) Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ezarritako ereduaren arabera formalizatuko da, eta erabiltzailearentzat informazio-sistema komunetan egongo da erabilgarri. Plan hori gauzatu ahal izango dute Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak edota Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateek, beren esku-hartze eremuaren arabera.

2.– Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP) Estatuko enplegu-araudian aurreikusitako Jarduera Akordioarekin bat etorri artikulatuko da, eta erabiltzaileari Euskal Enplegu Sarearen eremuan dagozkion konpromiso, betebeharrak eta jarduketak jasoko ditu.

3.– Ondore horietarako, EPIP izango da Euskal Enplegu Sarearen eremuan Jarduera Akordioa zehazteko eta jarraipena egiteko tresna operatiboa.

5. azpiatala

Tutoretza, aholkularitza jarraitua eta laguntza

51. artikulua.– Tutoretza, aholkularitza jarraitua eta laguntza.

1.– Tutoretza da enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP) gauzaten den bitartean garatzen den laguntza-prozesu pertsonalizatua. Helburua da erabiltzaileari laguntzea ezarritako helburuak betetzen, ibilbidea doitzea beharrezkoa denean, eta aurreikusitako zerbitzu eta jarduketetarako sarbidea erraztea.

2.– Tutoretza erreferentziazko profesionalaren bidez egingo da. Profesional horrek erabiltzailearen solaskide nagusi gisa jardungo du, prozesuaren koherentzia bermatuko du, eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari edo Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateei dagozkien jarduerak koordinatuko ditu.

3.– Aholkularitza tekniko jarraituak honako hauek jasoko ditu gutxienez:

a) Informazio eta orientazio eguneratua lan-merkatuari, sektore emergenteei, profil profesionaleri eta programa aktiboeri buruz.

b) Prestakuntza-eskaintzari, egiaztapen-prozesuari, birkualifikazioari eta konpetentzien hobekuntzari buruzko gida.

c) Helburu profesionala definitzeko, ibilbide soziolaborala planifikatzeko eta erabakiak hartzeko laguntza.

d) Enplegua aktiboki bilatzeko aholkularitza, barnean hartuz curriculum egitea, erreminta teknologikoak erabiltzea, enplegarritasun digitala hobetzea eta elkarrizketak nahiz hautaketa-prozesuak prestatzea.

e) Lan-mugikortasunari, beste lurralde batzuetako enplegu-aukerei eta, hala badagokio, EURES sarerako sarbideari buruzko informazioa.

4.– Laguntzak malgua, proaktiboa eta erabiltzailearen egoerara egokitua izan beharko du. Hala dagokionean, honako hauek jaso ahal izango ditu: banakako edo taldeko saioak, laguntza-erreminta digitalen erabilera, tarteko kontaktuak, bai eta motibazioa, autonomia eta prozesuaren jarraitutasuna indartzeko beste jarduketa batzuk ere.

5.– Laguntzaren intentsitatea eta maiztasuna zehaztuko dira diagnostikoaren eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuaren (EPIP) arabera; ez da aldizkakotasun zurrunik ezarriko, eta esku-hartze eraginkorra bermatuko da, pertsonaren premietara egokitua.

52. artikulua.– Erreferentziazko profesionala.

1.– Erreferentziazko profesionalak laguntza pertsonalizatu, jarraitu eta irisgarria bermatzen du enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP) garatzen den bitartean, eta prozesuaren koherentzia eta aurreikusitako jarduketaren koordinazioa bermatzen ditu.

2.– Teknikari horrek harreman-puntu nagusi, egonkor eta hurbil gisa jarduten du erabiltzailearentzat, eta erraztu egiten du Euskal Enplegu Sareko beste zerbitzu batzuekiko eta, beharrezkoa denean, inklusio-prozesuan inplikaturako beste sistema batzuekiko artikulazioa.

3.– Profesional hori izendatzeko, espezializazio-irizpideak, kargen oreka eta erabiltzailearen profilarrekiko egokitzapena hartuko dira kontuan. Esku-hartzeak tratu-berdintasuna, alborapenik eza eta genero-ikuspegia jasoko ditu oztopo eta premiak identifikatzean.



4.– Bere jarduketa guztietan, bete egingo ditu Euskal Enplegu Sarearen araudian jasotako inklusioaren, irisgarritasunaren, arreta pertsonalizatuaren eta aniztasunaren errespetuaren printzipioak, eta diagnostikoan nahiz enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuan (EPIP) aurreikusitakora egokituko da.

53. artikulua.– Ordezpen-eskubidearen bermea.

1.– Euskal Enplegu Sarearen erabiltzaileek erreferentziazko profesionala ordeztuko eskubidea izango dute, enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuan (EPIP) aurreikusitako laguntzaren kalitateari, egokitzapenari edo jarraitutasunari eragiten dioten arrazoiak daudenean.

2.– Eskubide horren helburua da laguntzaren jarraitutasuna eta kalitatea bermatzea, bai eta arreta pertsonalizatuaren harremanean konfiantza eta egokitzapen profesionala bermatzea ere.

54. artikulua.– Ordezpen-kasuak.

Erreferentziazko profesionala honako kasu hauetan ordeztu ahal izango da:

- a) Esleitutako profesionala aldi baterako edo luzaroan absente egotean, ezintasuna, baimenak, oporrak edo justifikatutako beste arrazoi batzuk direla-eta.
- b) Profesionalak lana uztean, lekualdatzean edo lanpostua aldatzean, eta horrek eragotzi egiten duenean laguntza ematen jarraitzea.
- c) Erabiltzaileak eskaera arrazoitua egitean, arreta-harremanari edo laneratze-prozesuaren eraginkortasunari negatiboki eragiten dioten arrazoi oinarridunak daudelako.
- d) Zerbitzuak edo entitateak berrantolatzean eta horren ondorioz erabiltzaileak berresleitzean.
- e) Teknikaren edo lurraldearen aldetik hobeto egokitzean, uste denean beste profesional edo lantalde batek laguntza egokiagoa eman dezakeela erabiltzailearen profila aintzat hartuta.

55. artikulua.– Ordezpen-prozedura.

1.– Ordezpena ofizioz edota alderdi batek eskatuta egin ahal izango da.

2.– Ordezpena ofizioz egiten bada, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak edo dagokion entitateak bermatuko du laguntza ematen jarraitzen dela, eta gehienez hamar egun balioduneko epean esleituko du erreferentziazko beste profesional bat, kausa egiaztatzen denetik kontaktzen hasita.

3.– Ordezpena erabiltzaileak hala eskatuta egiten bada:

- a) Eskaera idatziz eta arrazoituta aurkeztu beharko zaio Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari edo bere ibilbidea kudeatzen duen entitateari.
- b) Entitateak eskaera aztertuko du eta gehienez hamabost egun balioduneko epean ebatziko du, eta arrazoitu egingo du hartutako erabakia.



4.– Ordezpenak prozesuaren trazabilitatea eta koherentzia bermatu beharko ditu, profesional berriari espedientea eta behar den informazioa modu dokumentatuan transferituz.

56. artikulua.– Ordezpenaren ondoreak.

1.– Ordezpenak ez du inola ere enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP) etenaraziko, eta erabiltzaileak ez du ordezpenagatik eskubide edo lehentasunik galduko.

2.– Profesionalen arteko trantsizio-aldian, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak edo dagokion entitateak laguntza aldi baterako estaliko dela bermatuko du, aurreikusitako jarduketetan etenaldiak saihestuz.

3.– Ordezpenaren ondoren jarraipena bere gain hartzen duen erreferentziazko profesionalak berrikusi egingo du prozesuaren egoera, enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua (EPIP) doikuntzak egin behar diren baloratu du, eta, erabiltzailearekin batera, laguntzaren hurrengo urratsak planifikatuko ditu, jarraitutasuna, genero-ikuspegia eta arreta pertsonalizatua bermatuz.

4.– Ordezpenak ez du, inola ere, jada eginda dauden jarduerak errepikatzea ekarriko, salbu eta prozesuaren koherentzia teknikoa bermatzeko behar-beharrezkoa bada. Erabiltzaileak ez du bere gain karga gehigarririk hartuko ordezpenaren ondorioz, eta mantendu egingo ditu aurrez egindako jarduketetatik eratorritako eskubide guztiak.

57. artikulua.– Euskal Enplegu Sareko entitateekin koordinatzea.

1.– Ordezpen-eskubidea egikaritzeak ez du ezertan eragotziko Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateen antolaketa-autonomia, beren barne-arauei eta kudeaketa-prozedurei jarraikiz.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak, sarea koordinatzeko ardura duen ente gisa, beharrezkoak diren gutxieneko printzipio eta protokoloak ezarriko ditu Euskal Enplegu Sare osoan zerbitzuaren koherentzia bermatzeko.

58. artikulua.– Komunikazioa eta gardentasuna.

1.– Ordezpen oro formalki jakinarazi beharko zaio erabiltzaileari, eta adieraziko zaizkio ordezpenaren arrazoia, ondore-data eta erreferentziazko profesional berriaren identitatea.

2.– Erabiltzaileak oharrak egin edo gorabeherak jakinarazi ahal izango ditu ordezkapen-prozesuaren inguruan, eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak edo dagokion entitateak erregistratu eta baloratu egingo ditu.

59. artikulua.– Jarraipena eta ebaluazioa.

1.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak erreferentziazko profesionalen ordezpenen jarraipena egingo du urtero, arrazoi errepikariak eta zerbitzuaren kudeaketan egin daitezkeen hobekuntzak identifikatzeko.

2.– Jarraipen hori Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluari helarazi behar dion laguntza pertsonalizatuaren kalitatearen ebaluazio-txostenetan txertatuko da.



6. azpiatala

Tresna- eta laguntza-elementuak

60. artikulua.– Tresna- eta laguntza-elementuak.

1.– Enplegu-zentroek –hau da, profesional baten laguntza duten espazioek– autokontsultako baliabideak, lan-merkatuari buruzko informazio eguneratua eta ekipamendu teknologiko irisgarria eskainiko dituzte.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak laguntza- eta motibazio-programak garatuko ditu, bereziki laneratzeko zailtasunak dituzten edo gizartean bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzat.

3.– Orientazio-zerbitzuak euskarri digitala izango du, eta kanal irisgarri eta seguruak erabilgarri daudela bermatuko du.

2. ATALA

LANERAKO PRESTAKUNTZA-ZERBITZUA

61. artikulua.– Lanerako prestakuntza-zerbitzua.

Lanerako prestakuntza-zerbitzuaren helburua da, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 31. artikuluan adierazitakoaren arabera, langile okupatuen edo langabeen konpetentzia profesionalak eskuratzen, hobetzen eta eguneratzen laguntzea, haien enplegarritasuna handitzeko, garapen profesionala hobetzeko eta ekoizpen-sistemaren aldaketetara egokitzeko, horrela euskal ekonomia- eta gizarte-ehunaren lehiakortasuna, kohesioa eta jasagarritasuna bultzatuz.

62. artikulua.– Hartzaileak.

1.– Zerbitzuaren hartzaileak 16 urtetik gorako pertsonak izango dira, egoera hauetakoren batean daudenean:

- a) Langabeak, enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta daudenak.
- b) Okupatuak, besteren kontura edo norberaren kontura, beren konpetentzia profesionalen kualifikazioa, birkualifikazioa edo hobekuntza behar dutenak.
- c) Lanbide-trantsizioan dauden pertsonak, birmoldatze- edo berregituratze-prozesuen eraginpean daudenak edo enplegarritasuna hobetzen ari direnak.

2.– Zerbitzuaren jarduketak eskuratzeko lehentasunezko kolektibotzat hartuko dira beren egoera soziolaboralagatik laneratzeko edo enpleguari eusteko zailtasun handienak dituztenak edo lanbide-kualifikazioaren defizita dutenak. Bereziki hauek hartuko dira lehentasunezko kolektibotzat:

- a) Kualifikazio baxua duten edo kualifikaziorik ez duten 30 urtetik beherako gazteak.
- b) Langabezian luzaroan dauden 45 urtetik gorako pertsonak.
- c) Langabezian dauden edo prestakuntza-sektore edo -espezialitate jakin batzuetan azpiordezkatuta dauden emakumeak.



- d) Desgaitasuna duten pertsonak edota ikasteko edo laneratzeko berariazko laguntza-premiak dituzten pertsonak.
- e) Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten migratzaileak edo gutxiengo etnikoetako kideak.
- f) Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak, diru-sarrerak bermatzeko errentak edo antzekoak jasotzen dituztenak.
- g) Berregituraketa sektorialeko edo teknologikoko prozesuek eragindako langileak, birkualifikazioa behar dutenean.
- h) Arau baten bidez zehaztu daitezkeen beste kolektibo batzuk, edo prestakuntza-beharrak hautemanaz eta Euskal Enplegu Sarearen plangintza estrategikoa kontuan hartuta ezar daitezkeenak.

3.– Kolektibo horien lehenespena Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak onesten duen prestakuntza-eskaintzaren urteko edo urte anitzeko programazioan zehaztuko da, enplegarritasuna aktibatze eta hobetzeko planetan ezarritako helburuen arabera, bai eta lan-merkatuaren bilakaeraren eta ekoizpen-sistemaren premien arabera ere. Horiek guztiz lerrotatuta egon beharko dute Euskadiko Enpleguaren Euskal Estrategiarekin eta Hiru urteko Enplegu Planarekin.

63. artikulua. – Zerbitzua eskuratzeko eta laguntza jasotzeko eskakizunak eta baldintzak.

1.– Zerbitzua eskuratu ahal izateko, ekimen bakoitzerako eta prestakuntza-programa mota bakoitzerako ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte bai pertsonak, bai enpresek eta gainerako entitate enplegatzaileak.

2.– Parte hartu ahal izateko, plaza erabilgarriak egon beharko dira, eta prestakuntza-ekintza bakoitzerako ezarritako berariazko eskakizunak bete beharko dira, hala nola maila akademiko edo profesionala, aurretiazko esperientzia edo prestakuntza aprobetxatzeko beharrezkoak diren sarbide-konpetentziak.

3.– Zerbitzuaren prestazioa doakoa izango da parte-hartzaileentzat; dena den, prestakuntza-ekintzan sartzen diren unetik bertaratze-, aprobetxamendu- eta ebaluazio-konpromisoak hartu beharko dituzte beren gain.

64. artikulua. – Lanerako prestakuntza-zerbitzuko parte-hartzea, konpromisoak eta bermeak.

1.– Parte-hartzaileek bete egin beharko dituzte prestakuntza-ekintza bakoitzerako ezartzen diren bertaratze-eskakizunak, hartzaileen inguruabarrak eta prestakuntza-ekintzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Horrez gain, parte hartu beharko dute ebaluazio- eta jarraipen-jardueretan, prestakuntzakoak nahiz laneratzekoak izan.

2.– Arrazoi justifikaturik gabe bertaraten ez denak edota prestakuntza-ekintza bertan behera uzten duenak galdu egin ahal izango du Euskal Enplegu Sareko beste ekintza batzuetan parte hartzeko lehentasuna edo aldi baterako kanporatuta geratu ahal izango da. Horretarako, aurrez dagokion prozedura izapidetuko da, interesdunari entzunaldia



emango zaio, haren alegazioak eta inguruabarrak baloratuko dira eta ebazpen arrazoitua emango da, zeina ez den zehatzailea izango.

3.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak parte-hartze aktiborako konpromiso bat sinatzeko eskatu ahal izango die parte-hartzaileei. Konpromiso horrek honako hauek ekarriko ditu:

a) Enplegua aktiboki bilatzea edo hobekuntza profesionala bultzatzea, laneratze-ibilbide pertsonalizatuetan parte hartzea barne.

b) Proposatzen zaizkien orientazio-, prestakuntza- edo bitartekaritza-jardueretan laguntzea.

c) Lan-egoeran edo egoera pertsonalean gertatutako aldaketak jakinaraztea, prestakuntzaren jarraipenari eragiten diotenean.

d) Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak proposatutako aktibazio-neurriak onartzea, hala badagokio.

4.– Prestakuntza-ekintzetan sartzeko, parte hartzeko eta jarraipena egiteko eskakizunak aplikatzean, zainduko da erabiltzaileei eskatutako kargetan administrazioa sinplifikatzen dela eta proportzionaltasunari eusten zaiola, batez ere sarbide-zailtasun handienak dituzten kolektiboen kasuan, eta bermatuko da prozedurak ez direla oztopo prestakuntzan eraginkortasunez parte hartzeko.

5.– Artikulu honetan aurreikusitako baldintzak eta konpromisoak nahitaez bete beharko dituzte lanerako prestakuntza-zerbitzuan integratutako jarduketa guztietan parte hartzen dutenek, ezertan eragotzi gabe deialdi edo gauzatze-egitarau bakoitzean ezarritako berariazko egokitzapenak.

65. artikulua.– Lanerako prestakuntza-zerbitzuaren jarduketak.

Lanerako prestakuntza-zerbitzuak barnean hartuko du kompetentzia profesionalak garatzera bideratutako prestakuntza-jarduketan multzoa, beren modalitate eta helburu guztietan, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 31. artikuluan zehaztutako moduan eta ekoizpen-sistemaren eta lan-merkatuaren premiak aintzat hartuta. Ondore horietarako, honako jarduketa mota hauek sartuko dira:

a) Langabeentzako prestakuntza, hasierako kualifikaziora edo lanbide-birkualifikaziora bideratua.

b) Pertsona okupatuentzako prestakuntza, kompetentziak hobetu eta eguneratzera bideratua.

c) Prestakuntza- eta enplegu-ekintza mistoak, ikaskuntza eta lan eraginkorra konbinatzen dituztenak.

d) Prestakuntza modularra, Lanbide Kualifikazioen Euskal Katalogoari eta Lanbide Kompetentzien Estandarren Katalogo Nazionalari lotua.

e) Lan-esperientziaren bidez edo ikasteko beste bide ez-formal batzuen bidez eskuratutako kompetentzia profesionalak aitortzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko programak, hezkuntza-sistemarekin koordinatuta.

f) Laguntza-, tutoretza- eta orientazio-jarduketa osagarriak, laneratzeko edo lanbide-hobekuntzarako ibilbide pertsonalizatueta integratuak.

g) Lanerako lanbide-heziketaren arloko prestakuntza-, berrikuntza- eta esperimentazio-premiak hautemateko jarduketak.

h) Enpresa eta entitate enplegataileetan hautemandako premiei lotutako prestakuntza-jarduketak, barnean hartuz, hala dagokionean, enpresek programatutako prestakuntza eta ezartzen diren bestelako prestakuntza-ekimen estrategikoak, enpresentzako aholkularitza-zerbitzuarekin koordinatuta.

Prestakuntza-jarduketak, hala dagokionean, indarrean dagoen Prestakuntza Espezialitateen Katalogoari eta Enplegu Sistema Nazionaleko plangintza-tresnei erreferentzia eginez programatuko eta garatuko dira.

66. artikulua. – Prestazio-modalitateak.

1.– Zerbitzua eman ahal izango da aurrez aurre, hala fisikoki nola birtualki era sinkronoan, telematikoki edota modalitate mistoan, akreditatuta dauden edo Lanerako Prestakuntza Entitateen Euskal Erregistroan inskribatuta dauden prestakuntza-zentro eta -entitateen bidez.

2.– Jarduketak zuzenean eman ahal izango ditu Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak, edota entitate laguntzaileek kudeatu ahal izango dituzte, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

3.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak prestakuntza-jarduketan eta laneratzeko ibilbide integratuen arteko koherentzia bermatuko du, laneratzeko orientazio-, bitartekaritza- eta laguntza-zerbitzuekiko koordinazioa sustatuz.

4.– Zerbitzua ematean irisgarritasun unibertsalaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideak bete beharko dira.

67. artikulua. – Espero daitezkeen emaitzak eta kalitate-adierazleak.

1.– Honako hauek dira zerbitzuaren aldetik espero daitezkeen emaitzak:

- a) Parte-hartzaileen enplegagarritasuna hobetzea.
- b) Konpetentzia profesionalak eskuratzea, egiaztatzea edo eguneratzea.
- c) Pertsona langabeak edo trantsizioan daudenak laneratzeko edo lanean hobetzea.
- d) Prestakuntza-eskaintza ekoizpen-sistemaren premietara hobeto egokitzea.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak zerbitzuaren kalitatearen, efikaziaren eta eraginaren adierazleak ezarriko ditu. Horien artean, hauek egongo dira:

- a) Amaitze-, egiaztatze- eta ziurtatze-tasak.
- b) Laneratzeko-tasak eta enpleguari eustearen tasak.
- c) Parte-hartzaileen eta entitate laguntzaileen gogobetetasun-maila.
- d) Prestakuntza-erakundeek antzemandako eskari-profilei dagokienez duten egokitze-maila.

Adierazle horiek prestazio eta zerbitzuen zorroa ebaluatzeko sistema komunean txertatuko dira.

3. ATALA

BITARTEKARITZA- ETA ENPLEGATZE-ZERBITZUA

68. artikulua.– Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua.

1.– Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzuaren xedea da enpresa eta entitate laguntzaileek aurkeztutako enplegu-eskaintzak identifikatu eta kudeatzea, eta enplegu-eskatzaile diren pertsonekin lotzea, haien profilaren eta konpetentzien arabera, pertsoneri kalitatezko lan duina eskuratzen lagunduz eta eskaintza eta eskaria doitu.

2.– Zerbitzuaren jarduera teknikoak hauek izango dira gutxienez:

a) Enplegu-eskaintzak eta -aukerak aurkitzea, hirugarren herrialdeetatik etorritakoak barne.

b) Enplegu-eskaintza egoki eta eskuragarri zabalpena ematea kanal egokien bidez, besteak beste Enpleguaren Atari Bakarraren bidez.

c) Eskaintzetarako hautagai egokienak identifikatzea eta hautatzea, eta enplegu-eskaintzak eskatzaileei lotzearen emaitzari buruzko informazioa lortzera bideratutako bitartekaritza-jardueraren jarraipena bultzatzea.

d) Enpresen berregituratze-prozesuek eragindako langileak berrenplegatzeko prozesuetan laguntzea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

69. artikulua.– Zerbitzua eskuratzeko eskakizunak eta kudeaketa.

1.– Zerbitzua eskuratu ahal izateko, beharrezkoa da aurrez Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-zerbitzuen eskatzaile gisa inskribatzea, bitartekaritzarekin, eta arreta eta jarraipenerako tresna komunean erregistratzea.

2.– Enpresa eta entitate enplegatzaileen kasuan, beharrezkoa izango da Enplegu Zerbitzuen Informazio Sistema Publiko Integratuan (SISPE) alta ematea. Enpresa eta entitate enplegatzaileek deskribatu beharko dituzte lanpostuaren ezaugarriak eta funtzioak, eskatutako profil profesionala eta lan-baldintzak, langile kualifikatuen laguntzarekin, eskaintzak legeria betetzen duela bermatzeko.

3.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak zortzi egun balioduneko epean kudeatuko ditu enplegu-eskaintzak, enplegu-eskatzaileekin loturak eginez.

4. ATALA

AUTOENPLEGURAKO ETA EKINTZAILETZARAKO AHOIKULARITZA-ZERBITZUA

70. artikulua.– Autoenplegurako eta ekintzaitzarako aholkularitza-zerbitzua.

1.– Autoenplegurako eta ekintzaitzarako aholkularitza-zerbitzuaren xedea da autoenplegua eta ekintzaitza sustatzeko ekimen bideragarriak bultzatzea eta babestea, gizarte-ekonomiako entitateak eratzeko euskarri berezia emanez.

2.– Legean aurreikusitako eginkizunak garatzeko, aholkularitza-zerbitzuak honako jarduketara hauek egingo ditu gutxienez:

- a) Ekintzailletza-prozesuari eta ekintzailletzarako prestatzeari buruzko informazioa eta orientazioa, barnean hartuz ekintzailletza kolektiboari eta gizarte-ekonomiako proiektuei buruzko orientazioa, eta ekimenaren plangintza eta bideragarritasuna bultzatuz.
- b) Negozio-ideia, -ikuspegi eta -ereduaren analisia, bai eta ekonomia- eta finantza-planarena ere, ekimenen arriskuak, aukerak eta jasagarritasuna ebaluatuz.
- c) Ekintzailletzarako, autoenplegurako eta gizarte-ekonomiarako indarrean dauden laguntzak eta pizgarriak izapidetzeko aholkularitza eta laguntza kualifikatua, berriazko ildoen identifikazioa eta eskuratzeko eskakizunak barne.
- d) Pertsona ekintzaileek eta autonomoek jaso ditzaketen kontratazio-pizgarriei buruzko aholkularitza, barnean hartuz jasotako laguntzekiko bateragarritasunari buruzko orientazioa eta aplikatzekoa den lan-araudia.

3.– Zerbitzuaren kudeaketa eraginkorra bermatzeko, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileekiko eta gizarte-ekonomiako entitateekiko lankidetzara sustatuko du, bai eta koordinazioa ere autoenplegua eta ekintzailletza sustatzeko ardura duten bulego publiko eta pribatuen sareekin, bereziki tokiko garapen-agentziekin, ezartzen diren lankidetzara, partaidetzara eta komunikazio-tresnen bidez.

5. ATALA

PERTSONA, ENPRESA ETA ENTITATE ENPLEGATZAILEENTZAKO AHOALKULARITZA-ZERBITZUA

71. artikulua.– Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzako aholkularitza-zerbitzua.

1.– Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzako aholkularitza-zerbitzua enpresa eta entitate enplegatzaileen premiak hauteman, aztertu eta artatzera bideratuta dago, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 34. artikuluan aurreikusitako moduan.

2.– Zerbitzua modu jarraitu, espezializatu eta pertsonalizatuan emango da, eta lurralde-hurbiltasunaren, espezializazio sektorialaren eta Euskal Enplegu Sareko gainerako zerbitzuekiko koordinazioaren irizpideen arabera antolatuko da.

3.– Zerbitzuak jarduera tekniko hauek izango ditu gutxienez:

- a) Ekoizpen-ehunaren eta lan-merkatuaren prospekzioa egitea, kontratazio-beharrak, profil profesionalak eta kualifikazio-eskakizunak identifikatzera bideratuta, arreta eskainiz belaunaldi-erreleboari eta trantsizio digital, ekologiko eta demografikoari.
- b) Enpresa eta entitate enplegatzaileen kontratazio-beharrak identifikatzea eta laguntzea, enplegu-eskaintzak definitzeko eta kudeatzeko laguntza barne, bitartekaritza-zerbitzuekin koordinatuta.

- c) Lan-kontratazioko modalitateei, pizgarriei eta enpleguari laguntzeko neurriei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea, bereziki lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak kontratatzerantz bideratutakoei dagokienez.
- d) Pertsona okupatuaren kualifikazio-premiak hautematea eta lanerako prestakuntza-zerbitzuarekin koordinatzea, behar bezala artatzeko.
- e) Laguntza tekniko ematea lan-kontratazioaren komunikazio-prozesuetan eta lotutako lege-izapideak betetzean.
- f) Aholkularitza ematea desgaitasuna duten pertsonen aldeko enplegu-erreserbaren kuota betetzeari eta enplegu inklusiboaren arloan aplikatu beharreko neurriei buruz.
- g) Aholkularitza eta laguntza ematea berdintasun-planak ezartzeko eta garatzeko, eta enpleguaren kudeaketarekin zerikusia duten beste lege-betebehar batzuk betetzeko.
- h) Europako eremuko lan-mugikortasunari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea, EURES Sarean parte hartuz, enplegu-zerbitzu publikoekin eta sare hori osatzen duten entitateekin koordinatuta.

4.- Zerbitzuaren kudeaketa efikaza izan dadin, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileekiko lankidetzak sustatuko du, bereziki aurreko apartatuko b), c), d), e) eta f) letretan aurreikusitako jarduerari dagokienez, ezartzen diren lankidetzak, partaidetzak eta komunikazio-tresnen bidez.

6. ATALA

LAN-MERKATUARI BURUZKO INFORMAZIO AURRERATUA EMATEKO ZERBITZUA

72. artikulua.– Lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua emateko zerbitzua.

1.– Lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua emateko zerbitzuaren xedea da lan-merkatuari buruzko informazioa eta prospektiba biltzen, prozesatzen, aztertzen eta zabaltzen laguntzea. Euskarria da pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileek erabakiak hartzeko, enplegu-politika publikoak planifikatzeko eta enplegu-politikak ebaluatzeko, bai eta Sareko gainerako zerbitzuak etengabe hobetzeko ere.

2.– Zerbitzuak gutxienez honako hauei buruzko informazio eguneratu eta konparagarria jaso beharko du:

- a) Enplegu-zerbitzuen eskatzaile diren pertsonen lan-egoera, lehentasunezko arreta behar duten kolektiboaren egoera identifikatzeko behar den banakapenarekin.
- b) Okupazioen, sektoreen eta kualifikazio-premien proiektzio eta joerak.
- c) Gomendatutako prestakuntza-ibilbideak, kualifikazioei eta enplegu-aukerei lotuta.
- d) Titulazio ofizialen bidezko laneratzeari eta enpleguaren kalitateari lotutako adierazle nagusiak, gutxienez honako hauek biltzen dituela: enplegu-tasa, azpienplegua, enplegua bilatzeko batez besteko denbora eta jasotzen den batez besteko soldata.

3.– Sortutako informazioa Euskal Enplegu Sareko sistema komunean txertatuko da, eta Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokiaren bidez artikulatuko da, bermatuz

datuak elkarreragingarriak izango direla, aldizka eguneratuko direla eta sarea osatzen duten entitate guztientzat informazio homogenea eskuragarri egongo dela.

4.– Zerbitzuaren diseinuak eta garapenak modu eraginkorrean jasoko dituzte genero-ikuspegia eta sexuaren eta lehenetsunezko arreta behar duten taldeen arabera bereizketara, dekretu honetan ezarritako printzipioen arabera.

V. KAPITULUA

KALITATE-, EFIZIENTZIA- ETA EBALUAZIO-ESTANDARRAK

73. artikulua.– Kalitate- eta efizientzia-estandarrak.

1. Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Euskal Enplegu Sarearen entitate laguntzaileek kalitatearen gutxieneko estandar hauek aplikatuko dituzte:

a) Profesional bakoitzeko gehieneko arreta-ratioak. Ratio horiek zehazteko, batez ere enplegu-zerbitzu aurreratuen Europako batezbestekoak eta baliabideen erabilgarritasuna hartuko dira kontuan.

b) Zerbitzuaren kalitatea ziurtatzeko egokiak diren baldintza materialak eta langile-baldintzak.

c) Zerbitzuen irisgarritasun unibertsala eta erabilgarritasuna kanal guztietan.

74. artikulua.– Ebaluazioa, jarraipena eta trazabilitatea.

1.– Zorroko zerbitzuak nola ematen diren ebaluatzeko, adierazle kualitatibo eta kuantitatibo homogeenak erabiliko dira, sexuaren eta lehenetsunezko arreta behar duten kolektiboaren arabera bereizita. Adierazle horiek zerbitzuen kalitatearen, efikaziaren, efizientziaren eta eraginaren jarraipena egiteko aukera emango dute.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak auditoretza teknikoak eta aldizkako egiaztapenak egingo ditu emandako zerbitzuei dagokienez. Horrez gain, urteko ebaluazio-txostenak egingo ditu, zeinak publikoak izango diren eta eskuragarri egongo diren. Auditoretza hori Enplegu Politika Publikoaren Euskal Kontseiluari aurkeztuko zaio, jakinaren gainean egon dadin.

3.– Ebaluazioaren emaitzek zerbitzuak etengabe hobetzeko eta antzemandako premietara egokitzeko balioko dute.

4.– Jarduketa guztiak (triajea, diagnostikoa, EIPa, tutoretza, jarraipena...) lan-historia bakarrean eta lan-espeditente bakar pertsonalizatuan erregistratuta geratzeko dira.

5.– Jarraipena laneratzeari, enplegarritasuna hobetzeari eta lortutako enpleguaren kalitateari bideratuta egongo da. Sortutako informazioak zerbitzu-zorroa etengabe hobetzeko eta lan-merkatuaren beharretara egokitzeko balioko du.

75. artikulua. – Zorroko zerbitzuen koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

1.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren ardura izango da Euskal Enplegu Sarearen jardueren kudeaketa, jarraipena eta ebaluazio operatiboa egitea, bermatzeko jardura horiek behar bezala gauzatzen direla, parte hartzeko konpromisoak betetzen

direla, eta dekretu honetan zehaztutako kalitate- eta efikazia-adierazleak neurtzen direla.

2.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ebaluazio operatibo horren esparruan sortutako informazioa Besaldi – Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoan txertatuko da. Organo horrek zerbitzuaren ebaluazio estrategikoa eta eraginaren ebaluazioa egingo du, aintzat hartuta Euskal Enplegu Sareko prestazio eta zerbitzuen zorrorako ezarritako irizpide, metodologia eta adierazle komunak.

3.– Besaldi – Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoaren ebaluazioak aztertuko du lanerako prestakuntza-zerbitzuak zenbaterainoko efikazia, efizientzia, egokitasuna eta eragina dituen Euskal Enplegu Sarearen helburuei eta ekoizpen- nahiz gizarte-ehunaren beharrei dagokienez, eta zer-nolako ekarpena egiten dien berdintasun-, kohesio- eta jasangarritasun-printzipioei.

4.– Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Besaldi – Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazio-organoak lankidetzan jardungo dute ebaluazio-tresnak, -prozedurak eta -egutegiak definitzeko, eta informazio-sistemen elkarreragingarritasuna, datuen trazabilitatea eta ebaluazio-emaitezarako sarbide partekatua bermatuko dituzte.

Lehenengo xedapen gehigarria.– Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorrotik kanpoko berrikuntza-prozesuak.

Euskal Enplegu Sarearen esparruan, zerbitzu-zorrotik kanpo berrikuntza-prozesuak garatu ahal izango dira; besteak beste, jarduera, ekimen edo proiektu esperimentalak, pilotuak edo etengabeko hobekuntzakoak. Berrikuntza-prozesu horiek esku hartzeko, antolatzeko edo enplegu-zerbitzuak emateko modu berriak esploratzera bideratuta egongo dira.

Prozesu horiek ez dira Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroan sartutako zerbitzuen parte, ez dute prestazio-izaerarik eta ez dute eskubide subjektiborik sortzen erabiltzaileentzat. Edonola ere, zerbitzu-zorroa etorkizunean eguneratzeko oinarri gisa balio ahal izango dute, dekretu honetan aurreikusitako prozeduren arabera.

Prozesu horiek Enpleguaren Euskal Sarean txertatzen dira funtzionalki, erakundearteko lankidetzarako, antolamendu-ikaskuntzarako eta berrikuntzarako dinamikaren barruan, eta sarearen lurralde-mapa eta mapa funtzionalaren arabera garatzen dira, hura osatzen duten entitateen eskumen-banaketa eta antolamendu-autonomia errespetatuz.

Plangintzari, jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, zorrotik kanpoko berrikuntza-prozesuen artean honako hauek bereizi ahal izango dira, gutxienez:

- a) Prozesu emergenteak, hasierako esperimenez edo pilotajerara bideratuak.
- b) Prozesu finkatuak, ebaluazio positiboaren ondoren sarearen barruan erreferentziazko praktika gisa modu egonkorrean mantentzen direnak, baina zorroko zerbitzu-izaera eskuratu gabe.

Zorrotik kanpoko berrikuntza-prozesuen diseinua, sustapena, jarraipena eta ebaluazioa egingo da Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ezartzen dituen tresna teknikoen, ituntze-akordioen, jarraibideen, protokoloen edo deialdien bidez, Euskal

Enplegu Sarea osatzen duten entitateekin koordinatuta, eta bat etorri gardentasunaren, emaitzetarako orientazioaren eta etengabeko ebaluazioaren printzipioekin.

Zorrotik kanpoko berrikuntza-prozesuek ezingo dute, inola ere, zerbitzu-zorroan bermatutako zerbitzurik ordeztu, murriztu edo mugatu, ez eta alferrikako bikoiztasunik sortu ere, eta koherentzia bermatu beharko dute tresna komunetik, partekatuko informazio-sistemetatik eta Euskal Enplegu Sarearen helburu estrategikotatik.

Nolanahi ere, zorrotik kanpo garatutako jarduketak edo prozesuek ez dituzte ezertan eragotziko Euskal Enplegu Sarearen Mapa arautzen duen araudian aurreikusitako antolamendu- eta koordinazio-mekanismoak.

Bigarren xedapen gehigarria.– Inklusiorako eta laneratzeko ibilbide partekatuak.

1.– Euskal Enplegu Sarearen eta bere Mapa onesten duen Dekretuan zehaztutako inklusiorako eta laneratzeko ibilbide partekatuak Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroan txertatzen dira funtzionalki, orientazio-zerbitzua emateko modalitate gisa, erabiltzaileen egoerak, premiek edo profilak hala eskatzen dutenean.

2.– Ibilbide partekatuen helburua izango da arreta pertsonalizatua, espezializatua, malgua eta jarraitua bermatzea, tartean dauden sistemetako profesionalen esku-hartze integratuaren bidez, inklusioa lortzeko eta, ondorioz, dagozkion zorrotako zerbitzuak konbinatzeko, sekuentziatzeko edo aldi berean emateko, dekretu honetan aurreikusitako dimentsio anitzeko ikuspegiarekin bat etorri.

3.– Ibilbide partekatuen aktibazioa, garapena eta jarraipena Euskal Enplegu Sarearen eta bere Maparen Dekretuan ezarritako irizpide, integrazio-maila eta esparru funtzionala kontutan hartuta egingo da, eta, laneratzeari dagokionez, arreta eta jarraipenerako tresna komunaren bidez gauzatu da. Hori guztia lan-historia bakarrean behar bezala erregistratuta geratu da.

4.– Ibilbide partekatuak ez dira zorrotik bereizitako zerbitzu bat, enplegurako orientazio-zerbitzua emateko modalitate bat baizik, hasierako balorazioko, diagnostikoko, plangintzako eta akonpainamendurako prestazio tekniko gisa artikulatua, kalterik egin gabe erabiltzaileei aitortutako prestazio-eskubideei eta Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateen berezko eskumenei.

Hirugarren xedapen gehigarria.– Lanerako prestakuntza-zerbitzua.

1.– Zerbitzu-zorroa erabiltzaileei zuzenean ematen zaizkien prestazioetan zentratutako arren, lanerako prestakuntza-zerbitzuak bere eginkizunak beteko ditu koherentziari helduz prestakuntza-zentro eta -entitateen plangintza eta egiaztapenarekin, prestakuntza-sistemen kalitatearen kontrol, jarraipen eta ebaluazioarekin, bai eta etengabeko prestakuntza eta ikaskuntzarako mugikortasuna errazten duten Europako tresnekin ere, Estatuko eta Europako araudiarekin bat etorri.

2.– Dekretu honetan araututako lanerako prestakuntza-zerbitzua lan-arloko prestakuntza-ekimen eta -ekintzetara mugatuta dago, eta kanpoan geratzen dira Lanbide Heziketako sistemen berezko ekintzak, halakoak beren berariazko araudiaren mende egongo baitira, apirilaren 30eko 438/2024 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Laugarren xedapen gehigarria.– Enplegarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriak.

1.– Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen IV. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera, enplegarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriak politika publikoaren berriazko tresnak dira, aldi baterakoak edo finalistak, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroan sartutako zerbitzuez bestelakoak.

2.– Programa horiek berriazko dekretu baten bidez onetsiko eta arautuko dira, eta, gauzatzen direnean, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu eta tresna komunak baliatu ahal izango dituzte; horrek ez du esan nahi zerbitzu-zorroan sartuko direnik, ez eta zorro horretan aitortutakoez gain prestazio-eskubide gehigarriak sortuko denik ere.

Bosgarren xedapen gehigarria.– Tokiko enpleguaren estatistika ofizialak.

1.– Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) berriazko estatistika-eragiketa bat sartuko du bere Urteko Estatistika Planean, tokiko enpleguari buruzko datu homogeneoak bildu, tratatu eta argitaratu ahal izateko, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin eta toki-entitateekin lankidetzan.

2.– Estatistika-eragiketa horren helburua da tokiko enplegu-planak eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa ezartzen, jarraipena egiten eta ebaluatzen laguntzea, eta toki-entitateek enplegu-politika publikoak planifikatzeko eta kudeatzeko informazio konparagarri eta ustiagarria erabilgarri izango dutela bermatzea.

Seigarren xedapen gehigarria.– Kontzeptu-erreferentziak.

1.– Dekretu honetan enplegu-eskatzaille gisa inskribatzeari, zorroko zerbitzuei, lanerako prestakuntzari eta erabiltzaileen konpromisoari buruz egiten diren erreferentziak interpretatu eta aplikatuko dira Enplegu Sistema Nazionalaren zerbitzu-zorro komuna garatzen duen apirilaren 30eko 438/2024 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, aplikatzekoa den guztian.

2.– Dekretu honetan eta bere eranskinetan erabilitako kontzeptu-erreferentziak ikuspegi funtzionaletik egin dira eta prozesuetara eta emaitzetara bideratuta daude. Dena den, tresna komunak eta dagozkien garapen-xedapenen bidez, erreferentzia horien zehaztapen teknikoa egin ahal izango da.

Xedapen iragankor bakarra.– Tresna komunak pixkanaka ezartzea.

Tresna komunak pixkanaka ezarriko dira, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak onesten duen plangintzaren arabera.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau XXXXX(e)an jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko XXXXaren XX(e)(a)n.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlearitzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguako sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

I. ERANSKINA

EUSKAL ENPLEGU-SAREAREN ZERBITZU-ZORROKO ZERBITZUEN FITXAK.

Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuen fitxa teknikoak deskribatzaile eta funtzionalak dira. Egituraren aldetik, eta ondore sistematikoei begira, haietako bakoitzak osagaiak, jarduerak eta produktuak dauzka, zerbitzu bakoitza emateko prozesuaren faseen eta emaitzen erakusgarri.

Egitura hori ez da ez itxia eta ez zurruna, eta ez du baldintzatzen zerbitzuen garapen operatibo, instrumental edo prozedurazkoa. Hori sistemaren tresna komunen bidez zehaztuko da, eta, hala badagokio, onesten diren garapen-xedapenen bidez.

Prestazioak zerbitzuaren eduki funtzionaltzat hartuko dira. Zerbitzua, hain zuzen ere, fitxa honetan deskribatutako osagaien, jardueren eta produktuen bidez artikulatuta egongo da.

Zerbitzu bakoitzaren osagaiek zerbitzua emateko prozesuaren fase funtzionalak identifikatzen dituzte, eta erabat edo partzialki aktibatu ahal izango dira, modu sekuentzian edo ez, erabiltzailearen edo entitate hartzailearen premien eta esku-hartzearen izaeraren arabera.

Deskribatutako jarduerak zerbitzuaren berezko jarduketak izango dira. Modu integratu edo bateratuan egin ahal izango dira prozesuaren une funtzional berari erantzuten diotenean; alabaina, deskribapenean bereiz identifikatuta daude.

Produktuak zerbitzua emateko prozesuaren emaitza egiaztagarriak dira, eta, kasuen arabera, honako hauen bidez gauzatu ahal izango dira: tresna komunetako erregistroak, lortutako mugarriak, akordio formalizatuak, lortutako emaitzak edo, hala badagokio, dokumentuak; dagokion garapen teknikoan zehazten denaren arabera.

Fitxa teknikoetan deskribatutako produktuak ez dira administrazio-egintza autonomoak eta ez dute eskubide subjektiborik sortzen; aitzitik, zerbitzua emateko prozesuaren emaitza egiaztagarriak dira, jarraipena, ebaluazioa eta trazabilitatea egiteko.

Prozesua ixteak esku-hartze jakin bat amaitu dela adierazten du, baina ez du ezertan eragozten erabiltzaileari zorroko beste zerbitzu edo jarduketa batzuen bidez arreta ematen jarraitzea.

1. ZERBITZUA: ENPLEGURAKO ORIENTAZIOA.

a) DEFINIZIOA ETA HELBURUA:

Enplegurako orientazio-zerbitzuaren xedea da informazioa, diagnostiko indibidualizatua, aholkularitza eta laguntza ematea plangintza pertsonalizatuan, enplegarritasuna hobetzeko, kalitatezko enplegu bat lortzeko, garapen profesionalerako edota erabiltzailearen autoenplegu- edo ekintzailtza-aukeretarako.

b) PRESTAZIOAK:

-Euskal Enplegu Sareari eta ematen dituen zerbitzuei buruzko informazioa ematea.

-Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egitea.

-Zuzeneko laguntzaren edo autolaguntza-erreminten bidez, enplegua bilatzeko edo enplegarritasuna hobetzeko prestatzen laguntzea.

-Aurretiazko diagnostikoan oinarrituta, enplegu-plan integral pertsonalizatu bat formulatzea. Barnean hartzen ditu:

- Enplegarritasuna hobetzeko eta garapen profesionalerako laguntza eta zerbitzuak.
- Jarraipen integral eta indibiduala.

c) HARTZAILEAK:

Pertsona fisikoak, langabeak edo okupatuak, edota, beren espektatiben edo eskakizunen arabera, enplegarritasuna hobetu nahi dutenak eta lan duina eskuratu nahi dutenak, edota lan-merkatuan sartzea eskatzen ez duten orientazio-zerbitzuen, prestakuntza-zerbitzuen edo lan-informazioko zerbitzuen eskatzaileak.

d) ESKAKIZUNAK:

-Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan inskribatuta egotea.

-Hamasei urte baino gehiago izatea.

-Nortasun-agiri nazionala (NAN) edo atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) edukitzea.

-Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko kide den herrialde batekoa, edota Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioa sinatu duen herrialde batekoa (Islandia, Norvegia edo Liechtenstein) edo Suitzar Konfederaziokoa.

-Europar Batasunetik kanpoko langile atzerritarra izatea eta lan-merkatuan sartzeko eskubidea aitortuta edukitzea.

-Ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean izatea.

-Arreta eta jarraipenerako tresna komunean inskribatzea.

e). GARAPEN TEKNIKOA:

1) Osagaiak

- O1. Hasierako informazioa ematea eta harrera egitea
- O2. Enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egitea
- O3. Formalizatutako enplegurako ibilbide pertsonalizatua diseinatzea, edozein modalitatetan
- O4. Ibilbidean laguntzea, jarraipena egitea eta berrikustea

2) Jarduerak

Triajea, elkarrizketa, balorazioa eta diagnostikoa modu integratuan egin ahal izango dira, eta enplegarritasun-diagnostiko bakarra egingo da.

O1

- J1.1 Zerbitzuei buruzko oinarrizko informazioa ematea.
- J1.2 Aurrebalorazioa egitea eta deribatzea.
- J1.3 Tresna komunean hasierako erregistroa egitea.

O2

- J2.1 Hasierako triajea egitea.
- J2.2 Elkarrizketa diagnostikoa egitea.
- J2.3 Konpetentziak ebaluatzea.
- J2.4 Trabak identifikatzea.

- J2.5 Diagnostikoa erregistratzea.

O3

- J3.1 Helburu profesionalak definitzea.
- J3.2 Jarduketa teknikoak hautatzea.
- J3.3 Denbora-plangintza egitea.
- J3.4 Ibilbidea balidatzea.
- J3.5 Ibilbidea erregistratzea.

O4

- J4.1 Jarraipen-hitzorduak ezartzea.
- J4.2 Ibilbidea doitzea.
- J4.3 Beste zerbitzu batzuekin koordinatzea.
- J4.4 Prozesua ixtea. (Prozesua ixteak esku-hartze jakin bat amaitu dela adierazten du, baina ez du ezertan eragozten zorroko beste zerbitzu batzuen bidez arreta ematen jarraitzea.)

3) Produktuak:

- P1.1 Harrera-fitxa.
- P2.1 Tresna komunetan erregistratutako enplegagarritasun-diagnostikoaren emaitza.
- P3.1 Enplegurako ibilbide pertsonalizatua.
- P4.1 Tresna komunetan erregistratutako ibilbidearen jarraipenaren emaitza.
- P4.3 Esku-hartzearen itxiera, ezertan eragotzi gabe zorroko beste zerbitzu batzuen bidez arreta ematen jarraitzea.

2. ZERBITZUA: LANERAKO PRESTAKUNTZA.

a) DEFINIZIOA ETA HELBURUA:

Lanerako prestakuntza langileen kualifikazio profesionala hobetzera bideratutako prestazioa da. Haien konpetentzia profesionalak hobetzea eta laneratzeko edo enplegua hobetzeko duten gaitasuna indartzea du helburu, hautemandako premietara egokitutako prestakuntza-ekintzen bidez.

b) PRESTAZIOAK:

- Prestakuntza-eskaintzari buruzko informazioa ematea.

- Konpetentziak ebaluatzea, hala dagokionean eta erabilgarri dauden tresna komun arabera.
- Prestakuntza-ekintza ziurtagarrien, egiaztagarrien edo beste prestakuntza-ekintza batzuen ibilbideak proposatzea, aplikatzekoa den arau-esparruaren arabera.
- Prestakuntzari buruzko aholkularitza ematea.
- Hala badagokio, agindutako prestakuntza ematea.
- Beste prestakuntza-eskaintza batzuk (deribazioa).

c) HARTZAILEAK:

Pertsona fisikoak, langabeak edo okupatuak, beren espektatiben edo eskakizunen arabera, enplegarritasuna hobetu nahi dutenak eta lan duina eskuratu nahi dutenak, edota lan-merkatuan sartzea eskatzen ez duten orientazio-zerbitzuen, prestakuntza-zerbitzuen edo lan-informazioko zerbitzuen eskatzaileak.

d) ESKAKIZUNAK:

- Hamasei urte baino gehiago izatea.
- Nortasun-agiri nazionala (NAN) edo atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) edukitzea.
- Ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean izatea.
- Arreta eta jarraipenerako tresna komunean inskribatzea.

e) GARAPEN TEKNIKOA

1) Osagaiak

- O1. Prestakuntzari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea
- O2. Prestakuntza agintzea eta sarbidea ematea
- O3. Prestakuntza gauzatzea
- O4. Ebaluatzea, ziurtagiria egitea eta ixtea

2) Jarduerak

O1

- J1.1 Prestakuntza-eskaintzari buruzko informazioa ematea.
- J1.2 Konpetentziei buruzko aholkularitza ematea.
- J1.3 Eskakizunei eta akreditazioari buruzko orientazioa ematea.

O2

- J2.1 Prestakuntza-premiak identifikatzea.

- J2.2 Ekintzak hautatzea.
- J2.3 Inskribatzea eta deribatzea.
- J2.4 Orientazioarekin eta prestakuntza-entitateekin koordinatzea.

O3

- J3.1 Edukiak irakastea.
- J3.2 Tutorizatzea.
- J3.3 Etengabeko ebaluazioa egitea.
- J3.4 Egokitzapen metodologikoa egitea.

O4

- J4.1 Azken ebaluazioa egitea.
- J4.2 Emaitzak erregistratzea.
- J4.3 Aprobetxamendu-txostena egitea.
- J4.4 Zerbitzu berrietara deribatzea.

Prestakuntzaren emaitzak, hala dagokionean, enplegurako ibilbide pertsonalizatuan eta sistemaren tresna komunetan txertatuko dira.

3) Emaitzak

- P1.1 Aholkularitza-txostena.
- P2.1 Prestakuntza-gomendioa.
- P3.1 Burututako prestakuntza-moduluak.
- P4.1 Aplikatzekoa den arau-esparruaren arabera lortutako ziurtagiria edo egiaztagiria.
- P4.3 Azken txostena.

3. ZERBITZUA: BITARTEKARITZA ETA ENPLEGATZEA.

a) DEFINIZIOA ETA HELBURUA:

Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua enplegu-eskaintzak identifikatzeaz eta kudeatzeaz arduratzen da, bai eta eskaintza horietara ondoen egokitzen diren eskatzaileei lotzeaz ere, haien profilaren eta kompetentzien arabera.

b) PRESTAZIOAK:

- Enpresen prospekzioa egitea.

- Enplegu-eskaintzak aurkitzea eta kudeatzea.
- Eskaintzak erregistratzea eta zabalpena ematea.
- Enplegu-eskaintzak enplegu-eskaerekin lotzea.

c) HARTZAILEAK:

Enplegu-eskaintzetan parte hartzeko interesa duten pertsona, enpresa eta entitate enplegataileak.

d) ESKAKIZUNAK:

Pertsonen kasuan:

- Hamasei urte baino gehiago izatea.
- Nortasun-agiri nazionala (NAN) edo atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) edukitzea.

e) GARAPEN TEKNIKOA:

1) Osagaiak

- O1. Enpresa-prospekzioa egitea
- O2. Eskaintza erregistratzea eta doitzea
- O3. Eskaintza kudeatzea
- O4. Kontratazio-prozesua ezartzea eta kudeatzea

2) Jarduerak

O1

- J1.1 Enpresa-premiak hautematea eta aurretiaz identifikatzea.
- J1.2 Enpresekin prospekzio-lana egiteko ibilbidea zehaztea.
- J1.3 Zerbitzuak agintzea eta hautemandako premiak artatzea, zorroan inplikaturako zerbitzu edo jarduerekin lankidetzan.
- J1.4 Eskaintzak aurkitzea.

O1

- J2.1 Eskaintza-eskaerak kudeatzea.
- J2.2 Eskaintzei alta ematea eta aldatzea.
- J2.3 Kanal anitzeko argitalpenaz arduratzea.

O3

- J3.1 Konpetentziak bahetu eta iragaztea.
- J3.2 Elkarrizketa laburra egitea.

- J3.3 Hautagaitzak bidaltzea.
- J3.4 Tresna komunetan erregistratzea.

O4

- J4.1 Elkarrizketetan lagun egitea.
- J4.2 Izapideei buruzko aholkularitza ematea.
- J4.3 Eskaintza ixtea.
- J4.4 Beste zerbitzu batzuekin koordinatzea.

3) Emaitzak

- P1.1 Erregistratutako eskaintza.
- P2.1 Hautagaien zerrenda.
- P3.1 Prospekzio-txostena.
- P4.1 Eskaintzaren emaitza.
- P4.2 Enplegatze-erregistroa.

Bitartekaritzaren eta enplegatzearen emaitzak tresna komunetan erregistratuko dira, eta sistema ebaluatzeko eta zerbitzuak hobetzeko oinarri gisa erabiliko dira.

4. ZERBITZUA: AUTOENPLEGURAKO ETA EKINTZAILETZARAKO AHOLKULARITZA.

a) DEFINIZIOA ETA HELBURUA:

Autoenplegurako eta ekintzailtzarako aholkularitza-zerbitzuaren xedea autoenpleguaren eta ekintzailtzaren arloko ekimen bideragarriak bultzatzea eta babestea da.

b) PRESTAZIOAK:

- Pertsoneri edo kolektiboeri zuzendutako informazioa eta orientazioa ematea, ekintzaile izateko prozesuari, ekintzailtzarako prestatzeari eta autoenpleguko prestakuntza-programa espezifikoeri buruz.

- Ekintzailtzarako eta autoenplegurako laguntzak izapidetzeko informazioa, aholkularitza eta laguntza ematea.

- Negozio-proiektuari buruzko aholkularitza integrala ematea, barnean direla arriskuen ebaluazioa, bideragarritasunaren analisia, ekonomia- eta finantza-planaren azterketa, eta espazioak gaitzeari buruzko orientazioa.

- Lege- eta lan-aholkularitza ematea, eta kontrataziorako pizgarriari eta laguntzen bateragarritasunari buruzko informazioa ematea.

- Enpresa eta entitate enplegatzailerak mantentzeko eta sendotzeko aholkularitza ematea.

- Ekintzailtza zabaltzeko eta sustatzeko ekimenetan parte hartzea.

c) HARTZAILEAK:

Beren espektatiben edo eskakizunen arabera, autoenpleguaren eta ekintzailtzaren inguruko interesa duten pertsona fisikoak, langabeak edo okupatuak.

d) ESKAKIZUNAK:

- Hamasei urte baino gehiago izatea.

- Nortasun-agiri nazionala (NAN) edo atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) edukitzea.

- Enplegu Sistema Nazionalen enplegu-eskatzailer gisa inskribatuta egotea.

- Ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean izatea.

- Arreta eta jarraipenerako tresna komunean inskribatzea.

f) GARAPEN TEKNIKOA:

1) Osagaiak

- O1. Ekintzailtzari buruzko informazioa eta orientazioa ematea
- O2. Negozio-ereduaren bideragarritasuna aztertzea eta diseinatzea
- O3. Izapidetzea, finantzatzea eta formalizatzea
- O4. Martxan jartzea eta hasieran lagun egitea

2) Jarduerak

O1

- J1.1 Ekintzailtza-baliabideei buruzko informazioa ematea.
- J1.2 Tokiko laguntzen mapa egitea.
- J1.3 Interesak erregistratzea.

O2

- J2.1 Merkatuaren analisia egitea.
- J2.2 Balio-proposamenaren definizioa zehaztea.
- J2.3 Analisi ekonomikoa egitea.
- J2.4 Arriskuak identifikatzea.

O3

- J3.1 Izapideen ibilbidea zehaztea.

- J3.2 Laguntzen ibilbidea zehaztea.
- J3.3 Dokumentuak prestatzea.

O4

- J4.1 Abian jartzeko ibilbide-orria zehaztea.
- J4.2 Mentorizatzea.
- J4.3 Sareekin konexioa ezartzea.
- J4.4 Berrikuspena egitea.

3) Produktuak

- P1.1 Gida pertsonalizatua.
- P2.1 Bideragarritasun-laburpena.
- P2.2 Negozio-planaren zirriborroa.
- P3.1 Izapideen *checklista*.
- P3.2 Laguntzen dosierra.
- P4.1 Abian jartzeko plana.
- P4.2 Jarraipen-txostena.

Sortutako produktuen kasuan, zorroko beste zerbitzu batzuekin koordinatu ahal izango dira jarduketak, hala dagokionean.

5. ZERBITZUA: PERTSONA, ENPRESA ETA ENTITATE ENPLEGATZAILEENTZAKO AHOLKULARITZA.

a) DEFINIZIOA ETA HELBURUA:

Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzailleentzako aholkularitza-zerbitzuaren xedea da enpresa-premiak hautematea eta haiei erantzuten laguntzea, eta lan-merkatuaren eraldaketan aurrean babesa ematea, prospekzio- eta erantzun-sistema arin baten bidez, enplegutik, prestakuntzatik, informaziotik eta kontrataziorako modalitate eta laguntzen inguruko aholkularitza abiatuta.

b) PRESTAZIOAK:

- Premiak estaltzen laguntzea, hala nola:

- Lan-kontratazioko modalitateei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.
- Lan-kontratazioa komunikatzeko laguntza teknikoa ematea.
- Enpresa eta entitate enplegatzailleentzako prestakuntza-aholkularitza ematea, eskatutako profil profesional berrien kualifikazio-eskakizunei buruz.
- Berrenplegatze-prozesuetan edo merkatu edo ezarpen berriak irekitzeagatik premia berrien deribazioetan diseinua eta euskarria ematea.
- Pertsona okupatuen prestakuntza-premiak hautematea.

- Tokiko enplegu- eta garapen-planei edo plangintza-tresna baliokideei lotutako tokiko garapen ekonomikoa dinamizatzeko aholkularitza ematea.
 - Desgaitasuna duten pertsonen aldeko erreserba-kuota betetzeari buruzko aholkularitza ematea.
 - Belaunaldi-erreleboari eta plantilla-aniztasunari buruzko aholkularitza ematea.
 - Berdintasun-planak ezartzen eta garatzen aholkularitza eta laguntza ematea.
 - Trantsizio digital eta ekologikoan aholkularitza eta laguntza ematea.
- Kontratazio-laguntzak kudeatzea eta enpleguari eustea, honako hauek biltzen dituen:
- Pertsona langabeak edo lehentasunezko arreta behar duten kolektibo jakin batzuetakoak kontratatzearen ondoriozko pizgarri ekonomikoei buruzko laguntza.
 - Enpleguari eusteko eta enpresen lehiakortasuna bultzatzeko laguntzei buruzko informazio-euskarria.

c) HARTZAILEAK:

-Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileak

d) ESKAKIZUNAK:

-Arreta eta jarraipenerako tresna komunean inskribatzea.

e) GARAPEN TEKNIKOA:

1) Osagaiak

- O1. Enpresa-prospekzioa egitea
- O2. Kontratazioari eta laguntzei buruzko aholkularitza ematea
- O3. Pertsona okupatuak kualifikatzea
- O4. Araudia betetzea eta berdintasuna sustatzea
- O5. Beste zerbitzu batzuekin koordinatuta aritzea

2) Jarduerak

O1

- J1.1 Bisitak eta elkarrizketak egitea.
- J1.2 Hutsik dauden lanpostuak identifikatzea.
- J1.3 Premiak erregistratzea.

O2

- J2.1 Kontratuei buruzko aholkularitza ematea.
- J2.2 Laguntzei buruzko informazioa ematea.
- J2.3 Kontratazio-komunikazioa izapidetzea.

O3

- J3.1 Arrakalak detektatzea.
- J3.2 Prestakuntzarekin koordinatzea.
- J3.3 Jarraipena egitea.

O4

- J4.1 Erreserba-kuotari buruzko aholkularitza ematea.
- J4.2 Berdintasun-planei buruzko aholkularitza ematea.
- J4.3 Belaunaldi-erreleboari eta plantilla-aniztasunari buruzko aholkularitza ematea.
- J4.4 Trantsizio digital eta ekologikoan laguntzea.

O5

- J5.1 Bitartekaritzarekin koordinatzea.
- J5.2 Orientazioarekin koordinatzea.
- J5.3 Prestakuntzarekin koordinatzea.

3) Produktuak

- P1.1 Prospekzio-txostena.
- P2.1 Kontratazio-txostena.
- P2.2 Laguntza-espedita.
- P3.1 Kualifikazio-plana.
- P4.1 Betetze-txostena.
- P5.1 Koordinazio-orria.

Sortutako produktuen kasuan, zorroko beste zerbitzu batzuekin koordinatu ahal izango dira jarduketak, hala dagokionean.

6. ZERBITZUA: LAN-MERKATUARI BURUZKO INFORMAZIO AURRERATUA.

a) DEFINIZIOA ETA HELBURUA:

Lan-merkatuari, haren funtzionamenduari eta haren premiei buruzko informazio egituratua ematera bideratuta dagoen prestazioa da lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua emateko zerbitzua. Enplegu-aukerak identifikatuko ditu, okupazioei, kualifikazio-beharrei eta lotutako kompetentziei dagokienez.

Sortutako informazioa transbertsala izango da, eta zorroko gainerako zerbitzuak planifikatu, hobetu eta ebaluatzeko euskarri izango da.

b) PRESTAZIOAK:

- Lan-merkatuaren oraingo eta etorkizuneko egoerari buruzko informazio eguneratua. Honako hauek jasoko ditu:

- Enplegu-zerbitzuen eskatzaileen lan-egoerari buruzko informazio banakatua, lehenetsuneko arreta behar duten kolektiboen egoera ezagutzeko.
- Eskaintza-estaldurari buruzko informazioa eta txostenak, sektoreen eta geografiaren arabera.
- Prospekzio-azterketa sektorialak.
- Okupazioen, sektoreen eta kualifikazio-beharren etorkizuneko proiektzioak.

- Analisi okupazionala (lanpostuak, kompetentziak, lanbide berriak). Honako jarduera hauek sartuko dira bertan:

- Okupazioei lotutako kompetentziei eta trebetasunei buruzko informazioa.
- Nazioarteko lanpostuei buruzko informazioa eta deskribapena (kodeak, hiztegiak, etab.).
- Lanpostuei lotutako kompetentziei eta trebetasunei buruzko prestakuntza-ibilbideen inguruko informazioa.

- Enplegu-programa, -zerbitzu eta -baliabideei buruzko informazioa ematea.

c) HARTZAILEAK:

-Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileak

d) ESKAKIZUNAK:

- Arreta eta jarraipenerako tresna komunean inskribatzea.

e) GARAPEN TEKNIKOA:

1) Osagaiak

- O1. Behaketa eta datu-bilketa
- O2. Lanbidearen eta kualifikazioen analisia
- O3. Eskaintzen adimena eta joerak
- O4. Informazio- eta zabalkunde-produktuak
- O5. Erabakiak hartzeko eta politikak ebaluatzeko euskarria

2) Jarduerak

O1

- J1.1 Datuak sartzea eta araztea.
- J1.2 Kodetzea eta estandarizatzea.
- J1.3 Behatokiarekin integratzea.

O2

- J2.1 Analisi okupazionala egitea.
- J2.2 Prestakuntza-ibilbideak zehaztea.

- J2.3 Hiztegiak eguneratzea.

O3

- J3.1 Eskaintzei erantzutea.
- J3.2 Kualifikazio-proiekzioak.
- J3.3 Politika aktiboetarako gomendioak.

O4

- J4.1 Buletin sektorialak.
- J4.2 Aginte-koadroak.
- J4.3 Eskaerak artatzea.

O5

- J5.1 Ebaluazio-adierazleak.
- J5.2 Eraginaren ebaluazioa.
- J5.3 Laguntza teknikoa.

3) Produktuak

- P1.1 Dataset integratua.
- P2.1 Analisi okupazionalaren txostena.
- P3.1 Estalduren eta proiektzioen txostena.
- P4.1 Buletinak eta *dashboard*ak.
- P5.1 Adierazleen koadroa.